



argia

2015eko uztailaren 19a | LXXVIII. urtea | 2.470 zenbakia | 3,90



HERRIKO TABERNEN ITXIERA KONFISKAZIO ERRALDOIAREN AURREAN ZER?

JULE GOIKOETXEA: "Kapitalismo guztiak ez dira berdinak"

JAVI CARRO (EAJ): "Onartu den legearen espiritua frackinga eragozteko da"

Datorren astean





Azaleko argazkia:
MARISOL RAMIREZ /
ARGAZKI PRESS

Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta
argitaratu ditzakezu, gure
egileta aitortu eta baldintza
beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria:
Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-
Pertsonaia: Mikel Garcia. Irizkiak: Mikel Asurmendi. Kultura:
Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea.
Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria.
Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua:
Lander Arbelaiz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier
Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetza: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo.
Idazkaritza tekniko: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi,
Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta,
Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen
Loiarte. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-
Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa
Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña.
Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1,
2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko
Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel:
948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala:
komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus.
Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko
harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro;
hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekoa, 41 euro. Beste
atzeriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko uztailaren 19a, 2.470. zenbakia

ASTEKO GAIA

HERRIKO TABERNA ETA ELKARTEEN ITXIERA

Desobedientzia herriz herri.
LANDER ARBELAIZ MITXELENA / 4

PERTSONAIA

JULE GOIKOETXEA: «Ezin dugu edukirik gabe erabaki».

SUSTRAI COLINA / 9

GAIK

TEKNOLOGIA IRAUNKORRA Segia, erreminta moderno hori.

PELLO ZUBIRIA KAMINO / 14

TANTAI Oztoporik gabeko aisia aniztasun funtzionala

dutenentzat. JUDITH PEREZ / 16

IRITZIAREN LEIHOA

IRABAZLEAK MIKEL ZURBANO / 20

HERRI BOTOAK ETA GERO HAU! BIXENTE SERRANO IZKO / 22

POLITIKA: NORBAIT HASERRETZEKO BEHARRA

IVÁN GIMÉNEZ / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

ZIRTAK Errenta-aitorpena. DANELE SARRIUGARTE / 21

TXANDAN Aski malko. ITXARO BORDA / 22

BERTSO BERRIAK 28 galdera euskal kulturari.

BEÑAT GAZTELUMENDI ARANDIA / 24

ERDIKO KAIERA

ALAN LOMAX Euskaldunak kantari grabatu zituen ikertzailea.

MIEL A. ELUSTONDO / 25

EA-KO POESIA EGUNAK Nola egin leku kabitzen ez dakienari.

ITZIAR UGARTE IRIZAR / 28

LITERATURA SAIOA RUIZ / 30

MUSIKA JOXI UBEDA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 32

OSASUNA JABIER AGIRRE / 33

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 34

● BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

NIKOLAS BLAIN: «Iparraldearen alde edo kontra, ez dago erdibiderik». MIKEL ASURMENDI / 37

JAVI CARRO (EAJ): «Alderdiok Jaurlaritzari esan dioguna argia da: gelditu frackinga». UNAI BREA / 42

RAFAEL ADAN: «Bierzon adineko jendearekin batera ari da galtzen galegoa». MIEL A. ELUSTONDO / 44

EKONOMIA SOZIALA Oinarrizko errenta unibertsala ezarriko dute Utrecht hirian. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Eliteen ustelkeriak zergatik barkatzen dituzte herritarrek? PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Desobedientzia herriz herri

Ezker abertzalearekin lotura duten 107 Herriko Taberna eta kultur elkarte ixteko agindua berretsi du Espainiako Auzitegi Gorenak. Inork ez daki noiz eta nola egingo duten halako polizia-operazioa, baina bitartean, erresistentzia estrategiak lantzen ari dira herriz herri.

Herrikoak itxi ostean, irekiko dituzten gune berriek nolakoak izan behar duten birplanteatzen ere ari dira.

| LANDER ARBELAITZ MITXELENA |

PRESOEN ARGAZKIAK barraren gainetik tabernaren zaindari. Herri mugimenduen ekintza eta kartelak komunaren ondoko tabloian: EHZ festibaleko egitaraua, Elektrotxarangen II. Topaketa, Mozal legearen aurkako mahai-ingurua... Auzoko bikote heldu bat plater konbinatua jaten ari da, gazte batzuk leihotan kafea hartzen berriketan. Albistegi mututua telebistan, Benito Lertxundiren diskoak girotzen du ostegun eguerdia Donostiako Herria tabernan. Espainiako Auzitegi Nazionalak konfiskatzeko agindu duen 107 tabernetako bat da.

Tuterako Abardena Elkar-
tea, Usurbilgo Aitzaga, Gas-
teizko Aitzgorri, Urretxuko
Aldiri, Durangoko Intxaurre,
Markinako Amañur, Lazkao
Ansoategi, Artziniegako Otsa-
ti, Larrabetzuko Aretxabalaga,
Alonsotegiko Aritzemendi,
Tafallako Azoka... Hego Eus-
kal Herrian barrena ixtera
behartutako taberna eta elkar-
teen zerrenda beltza osatu dute
Espainiako epaileek.

“Ikusten dugu, 14 urteko
epaiketaren ostean, Espainiako Estatuak ez
duela inondik ere borroka legal hau galdu
nahi. *Dena ETA da* tesia mantentzeagatik
astakeria handiak egin dituzte eta orain ez
dute atzera egingo. Guk ordainduko dugu,
hurrengoek ordainduko dute, eta horrela
jarraituko dugu Espainiako Gobernua aldatu
arte edo Estatuaren posizioa aldaraztea lor-
tzen dugun arte”.

Joseba Alvarezen hitzak dira, 35/02 suma-
rioan auziperatua, 14 urtez iraun duen epai-
ketan parte hartu du. 785 orriko epaian,
Herriko tabernak eta elkarteak konfiskatze-

ko agintzearekin batera, aurrez eskatzen
zitzaien hiru urteko kartzela zigorra murriz-
tu diete epaiketa hamarkada bat baino gehia-
go luzatu delako, eta urte bat eta 10 hilabete-
ra zigortu dute ezker abertzaleko Joseba
Permach, Rufi Etxeberria, Karmelo Landa
eta Juan Kruz Aldasororekin batera. Floren
Aioiz, Antton Morcillo eta Jon Gorrotxategi-
ri urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri diete.
Azkenik, beste hamabi lagun urtebete eta
hiru hilabetera zigortu dituzte Herriko taber-
nen zatiagatik. Ez du inork kartzelara joan
beharrik izango.

**“Noiz joango dira lokalak ixtera?
Uztailaren 30a da muga,
epaileek oporrak hartzen
dituztelako eta abuztuko
ordezkoak ez duelako patata
beroa ukituko. Bestela, irailetik
aurrera”**

Joseba Alvarez

“57 urterekin laugarren
aldiz kartzelara joatea eta lan-
postua galtzea ez da broma, eta
horrenbestez, salbatzea berri
pozarria da. Hala ere, epaia
politikoki txarra da, akusazioa
mantendu egiten dutelako, eta
tesi berarekin jarraitzen dutela-
ko”. Alvarezek uste du atzetik
doazenentzat erabaki makurra
dela. Udazkenean egokituko
zaie Askapenako kideei, Segu-
rako operazioan atxilotutako
Batasunako zuzendaritza poli-
tikoari, eta ondoren presoan abokatuei,
Herrirako kideei... 100 pertsonatik gora
daude epai zain.

Herriko Taberna eta elkarte batzuk epaike-
tak iraun duen 14 urteetan itxi dira. Honen-
bestez, 90 bati eragingo die aginduak. Guzti-
ra, 150 inguru dira lokal hauen itxieragatik
lanpostua galduko duten pertsonak.

Herriko Tabernen defentsa

Kamiseta laranja soinean, eskubide zibil eta
politikoen alde batetik bestera dabilen Eleak
mugimenduko Txerra Bolinagak hartu du

HERRIKO TABERNA ETA ELKARTEEN ITXIERA



107 Herriko Taberna eta elkarte ixteko agindu du Espainiako Auzitegi Nazionalak.

hitza. Epaia jakin berrian, Herriko taberna guztietako ordezkariak atzean, Herrikoak defendatuko dituztela iragarri dute Zarautzen. “*This is neither Spain nor France, you are in the Basque Country*” oharra turistentzat leihoan, Libre zuria pertsiana laranjan.

“Auziperatuak defendatzen ditugun moduan, Herrikoak defendatuko ditugu. Erasoen aurrean konpromisoak batuz jarraituko dugu, eta guztion eskubide zibil eta politikok defendatuko ditugu. Herri honek argi adierazi du: guztiok bat eginda ez dago geldiaraziko gaituen gobernu, polizia, epaile edo nekerik”.

Herri harresien dinamika abiatu zenetik, mugimendu desobedientea tokian toki egonkortzeko lanean ari dira azken hilabeteetan. Herriko Tabernen auzian erantzunarekin laguntzea erronka handia dela diote Eleak mugimendutik. “Orain artekoekin alderatuta ezaugarri ezberdinak ditu honek. 107 Herriko Taberna eta elkarte dira, oso kopuru handia, eta hori ez da erronka makala”, dio Bolinagak.

Elkarte hauek ezker abertzalearenak izateaz gain, zigortutako pertsonak ere hala direnez, talde eragile mistoa osatu dute. “Ezker abertzaleak badauka zeresana auzi honetan, zuzenean inplikatu da, eta pozik gaude bilera mistoekin, Libre dinamikaren baitan, gako desobedientearen erantzun behar dugula ados baikaude denok”.

Herriko Tabernak eta elkarteak dauden herri bakoitzean taldeak osatzen doaz. Abokatuek gainera, errekurso bidez herriz herri borrokatuko dutela adierazi du.

Operazio konplexua

Noiz joango dira lokalak ixtera? Uztailean? Abuztuan? Irailean? Udazkenean? Alvarez konbentzituta dago uztailaren 30a dela muga, epaileek oporrak hartzen dituztelako eta abuztuan sartuko den ordezkoko epaileak ez duela patata beroa ukituko. Hala balitz, “*Herrikoak libre eta zabalik*” kanpainarekin, uda osoan kausa honen alde lan egiteko asmoa dute, jaietan babesa bilatzeko baliatuz.

Hala ere, gogoratu behar da Espainiako Auzitegi Nazionalak 2002/35 sumarioaren epaia 2014ko uztailaren 30ean eman zuela, oporren aurretik azken egunean.

Abuztuaren aurretik edo ondoren, itxiera ez da erraza izango, eta luze jo dezakeela aurreikus daiteke. Legalki konplexua da itxiera, jabeak ezberdinak baitira herriz herri, eta hortaz, gune bakoitzak bere prozedura legal propioa behar du. Horrez gain, nahiz eta polizia-operazio erraldoia antolatu, denak batera ezustean ixteak ezinezkoa dirudi.

Lehen itxieren albistearekin batera, lurrikara politikoa espero da, eta Euskal Herri osoan, herri bakoitzean formula adostuta, ehunka herritar mobilizatuko dira beren auzo edo herriko guneen itxierak zailtzeko. Hala gertatuz gero, herriz herri lokalak hustu beharko ditu poliziak, eta ondoren, prezintatu. Oraingoan ez da inbentariarik egin behar. Prezintatu ostean, baliteke hainbat lekutan zigilua apurtu eta berriz ere sartzeko hautua egitea, polizia operazioa nabarmen luzatuz, nahiz eta jakin horrek zigor gogorragoa dakarrela barruan harrapatzen dituztenentzat. Behin aginduak beteta, lokalak enkantean jartzea da asmoa eta jasotako dirua Espainiako Estatuarentzat izango da. Sare sozialetan irakurritako mezu ironiko batek dioen gisan, azkenean Estatua izango da Herriko Tabernen bitartez finantzatzeko dena.

“Herri batzuetan erresistentzia fasea gogo handiz ari dira prestatzen”. Alvarezen iritziz erresistentzia formatu anitza pentsatu behar da, ahalik eta jende gehienak har dezan parte. Lokalaren kanpoaldean planteatutako desobedientziatik, gaztetxe eta bestelako desalojotetan erabili ohi diren erresistentzia tekniketarako, erresistentzia ariketa anitzak prestatzen ari dira. “Desobedientziaren aniztasunean asmatu behar dugu”. Bolinagak “malgutasuna” hitza behin eta berriz aipatu du, argi utziz kasuan kasu erantzun ezberdina emango zaiola.

Espainiako Estatua krisi larrian

Bertso eskolaren bidez iritsi zen Azpeitiko Orkatz tabernara Jokin Uranga. Bertso saioak antolatzen hasi ziren, eta ondoren bestelako kultur dinamiketan ere lanean amaitu dute. Gunearen defentsan buru-belarri dabil-tzan taldeetako bat da.

Pozik daudela adierazi du, jende askok adierazi baitie gertatzen ari dena injustua dela –“eta ez soilik ezker abertzaleko jendeak”–, eta babes handia jasotzen ari direla dio. Ezker independentistaren aurkako beste eraso bat dela pentsatzen du Urangak, Baltasar Garzón-ek hasitako bidetik. “Kaleko dinamikatik atera nahi gaituzte”.

Koldobike Muniain zarauztarra da, eta Herriko Tabernen izenean hartu zuen hitza epaia salatzeko ekitaldian. “Ezker abertzalearen oinarriari lokal eta espazioak lapurtzen dizkion eta bataila politikoa galdu duen Estatu baten ezintasunaren ikur bilakatuko da Herrikoen lapurreta”.

1936an Hego Euskal Herrian faxistek errepublikar eta abertzaleei eginiko lokal eta ondasun lapurreta errepikatuko du Auzitegi Gorenak, Muniainen ustez. European azken



AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com



HERRIKO TABERNA ETA ELKARTEEN ITXIERA

hamarkadetan mugimendu politiko bati ez zaiola horrenbesteko ondasun lapurretarik egin azpimarratu du hainbatek.

“Estatua krisian dago, nola edo hala eutsi nahi diote egoerari, eta egiten dakiten gauza bakarra errepresioa areagotzea da”. Alvarezen ustez, nabarmena da estatu mailan gertatzen ari den aktibazio soziala. Milioika pertsona langabezian, Kataluniako independentzia prozesua, Podemos gisako fenomeno berriak, monarkiaren eraberritze “prezipitua”, usteleria kasuak... “PPk badaki fase hau amaitzearela”.

Euskal Herrian sortu den giro politikoak gehiago ahultzen du Estatua Alvarezen iritziz, eta horren erantzuna dira makroepaiketa gehiago, Mozal legea, Kode Penal berria, presoen gaia ez mugitzea... Oso kezkatuta ikusten ditu eta ahalik eta lotuen utzi nahi dute gauza, bere ustez.

Nahiz eta abokatuek esan dieten uda aurretik ez direla ixtera joango, ez dira fidatzen. “Gu geure buruari begira gaude, egin behar ditugun gauzak pixkana egiten ari gara, talde indartsua osatu dugulako. Batetik, klabe desobedientean itxiera nola zaildu prestatzen; eta bestetik, aurrera begira, Orkatz berriak nola izan behar duen pentsatzen”.

Herritar talde zehatz bati eraso egitean, gizarte osoari egiten zaiola eraso aldarrikatzen du Joseba Alvarezek, eta ez du uste ezker abertzalea denik erantzun behar duen eragile bakarra.

“Hedabideak itxi dizkigute, alderdiak ilegalizatu, mugimenduak debekatu... eta beti sortu ditugu berriak. Hemen gauza bera egin behar dugu, eta aukera baliatzen badugu Herriko Tabernen kontzeptuari buelta bat emateko, bikain”. Alvarezen ustez koiunturala da lokal hauek babesteko egingo den erresistentzia, eta garrantzitsuagoa da hurrengo pausoa: “Zer nolako guneak behar ditugu antolaketa eta mugimendu sozio politikoei dagokien espazio irekiagoak emateko?”.

Taberna hauek 1980ko hamarkadan sortu ziren. “Beste egoera bat zen, beste fase bat, Euskal Herriko gatazkaren enfrentamendua beste bat zen, eta ezker abertzaleak beste era batera jokatzaren zuen. Hori aldatu egin da eta gauza hauek ere aldatu behar ditugu”. Eztabaida mahai gainean dago.

Zentro sozial autogestionatuetan, adibidez, esperientzia aberasgarriak daudela dio. Espazioak alderdi baten inguruan sortu beharrean, beste balore batzuetan oinarrituz, militantziarako eta koordinaziorako diren gune hauek

izaera zabalagoa har dezaten. “Ezkerrak, era zabal batean planteatuta, zer nolako guneak behar ditu?”, galdetu du Alvarezek.

“Jendea ari da gogoetan, kolpe handia emango digute eta ekonomikoki ziur gaizki ibiliko garela, baina aurrekoetan bezala, ziur naiz hemendik ere indartuta aterako garela”, dio Urangak.

Desobedientzia indartzea da asmoa

Txerra Bolinagak aitortu du oraindik mugimendu desobedientea ez dela gai Estatuaren posizioak mugitzeko, baina bide berean sakontzea beste aukerarik ez du ikusten. Mugimendura lan egiteko prest dagoen gero eta jende gehiago hurbiltzen ari dela dio, eta atxikimen-

dua gero eta handiagoa dela sentitzen dutela. Gauzak horrela, Herriko Taberna eta elkarteak defendatzeko osatuko diren talde ugari, gerora, eskubide zibil eta politikoak lantzen ari diren taldeetara gehitzeko aukerak ikusten ditu. “Hau hazten ari da, borroka honek motibatu egiten duelako jendea, eta erronka handiak ditugulako aurrean”.

Disidentzia politikoaren kontzeptua garrantzitsua dela uste du Alvarezek. Troika, etxe kaleratzeak, eredu sozial antidemokratikoa, migrazioarekiko jokamoldea, kaleratze merkeak... Neoliberalismoaren jokaera inoiz baino ageriago ikusten dute herritarrek, dio. “Ezkerretik alternatiba indartsua egituratzeko aukera dago hor, eta Herrikoen aurkako erasoa gako horietan kokatu behar dugu”.

“Euskal Herriko disidentzia politiko horren parte baten ikurren aurkako erasoa da hau, baina funtsean honen guztiaren motorretako bat kolpatu nahi dute, eraldaketarako sentsazioa”.

Espainiako Estatuak Mozal Legea eta Kode Penal berria onartu ditu uztailean. “Argi dugu ezin garela beldurtu, bestela gureak egin du”. Borrokatzeko desobedientzia jendetsuak egin behar direla pentsatzen du Bolinagak. “Futbol zelaian Espainiako ereserkiari egindako txistuarekin bezala da; batek bakarrik egiten badu txistu, bereak egin du; 100.000k egiten badute, ezin dute ezer egin. Hemen berdin”.

Pixkana elur bola handitzen sentitzen dute Eleakeko kideek. “Denok batera goaz, Askapenakoekin oso pozik ari gara lanean, orain Sortu ere gako beretan ikusten dut, beste ekimen batzuk ere hasi dira... Bidea argi dugu, eta egia esan, beste biderik ez dugula sinetsita gaude: desobedientziaren elur bola hau handitu behar dugu estatua baldintzatzerantz iritsiko bagara”. ■

Lokalen kanpoaldean planteatutako desobedientziatik, gartzetxe eta bestelako desalojoetan erabili ohi diren erresistentzia tekniketarako, aukera anitzak prestatzen ari dira

PERTSONAIA

JULE GOIKOETXEA

«Ezin dugu edukirik gabe erabaki»

“Askok irudipena du... Askok itxura hutsetik...”

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



“Txikitan gidatzen ninduen mutiko basatiaren idearioa suntsitu egin da eta gaizki atera den neskatxa baten posterretratu daukat ordezeko”.

Txikitan, besterik gabe Jule nintzen irudipena nuen. Ez neska izatearen sentipenik ez gero etorriko zen guztiaren kontzientziarik. Oso identifikatuta sentitzen nintzen oihane-ko mutikoarekin. Zure iruditerian zure burua norekin nola ikusten duzun eta gizarteak norekin eta zerekin lotzen zaituen oso gutxitan datoz bat. Talka horren kudeaketak

baldintzatzen dizkizu oreka mental eta emozionala. Niretzat ez da bereziki gatazkatsua izan baina su-etenik gabeko gerra da askorentzat. Zer gara, gure ustez garena edo besteek gutaz uste dutena? Zer gertatzen da gizarteak ez badu izan nahi duzuna ikusi nahi edo galarazten badu? Zarenera edo izan nahi duzunera heltzeko borrokan ez baita nahikoa diskurtsoa. Diskurtsiboak gara, baina diskurtsoak ez du bizitza atsegin-garriagoa bihurtzen.

Zein leku hartzen du estatuak bizitzan?

Oso egiturazalea naiz, orohar. Politika deitzen dugun eremuan estatua da egitura ahaltsuena: gizartea era batera edo bestera birsortzeko gaitasuna dauka, biziraupena gaur eta hemen bermatzen du... Kontua ez da egitura ahaltsu hori estatua izendatzen dugun edo ez, egiturek gizartearentzako eta identitate pertsonalarentzako dituzten ondorioak ulertzea baizik. Hori da jorratu beharrekoa. Izan ere, nahiko herri egituratua gara. Hegoaldean politikoki oso erakundetuta gaude, eta Iparraldean kolore politiko guztiek azpimarratzen dute egitura baten premia eta garrantzia. Ez dira alferrik estatuak edo egiturak gizartearen araberakoak. Egiturak gizarteek egikaritzen dituzten heinean islatzen da gizarte horren kultura politikoa. Demokrazia guztiak ez dira berdinak eta kapitalismo guztiak ere ez.

Gurean ez al dugu estatugintza naziogintzarekin ordezkatu?

Bai, baina deskriptiboki estatugintza da benetan egin duguna. Estatuarekiko eta ahalmen handiko erakundeekiko errezeloz eta desconfiantzaz, naziogintza edo herrigintza erabili dira, baina aldaketa haizeak datoz. Eskozian zein Katalunian diskurtsoa mudatzen ari da, jende gehienak ez du estatugintza lehen bezain hotz eta arrotz hartzen. Zergatik? Ditzosozko naziogintza edo herrigintza ongizatearekin lotzen hasi direlako. Euskal eskola publikoa, euskaraz bizi ahal izatea, gizarte zerbitzu egokiak jasotzea... naziogintza eta herrigintza izateaz gain, estatugintza dira! Ez gaitezen engaina, Hegoaldean estatu erakundeak dauzkagu, eta herri honek gizartetik sortua erakundetzeko joera historikoa du. Horregatik, kanpotik begiratura, nabarmena da estatugintza itzela egin dela hemen. Diskurtsoan hitza txertatzea falta zaigu.

Iraun dezakegu euskal estaturik gabe?

Epe luzera ez eta epe ertainera dudako biziraupenarekin. Egungo euskal gizartea ez da orain 500 urtekoa, 200 urtekoa, ezta 50 urte-

koa ere, eta bere zentzu zabalean euskaldun izateak biziraupen kaskarra badakar, askok euskaldun izateari utziko dio. Euskal estaturik gabe nekez izango dugu kalitatezko biziraupenik. Are gehiago, euskal estaturik gabe ez da euskal demokraziarik egongo. Ez dakigu aurrerantzean estatuak zer bihurtuko diren, baina nola gauzatuko ditugu euskal gizartearen eskakizunak euskal estaturik gabe? Eskakizun horiek bete ezean, kultura edo entitate museistiko legez aniztasunaren aterkipean tokitxo bat egingo digute agian, baina ez gara komunitate politiko bat izango. Horregatik, komunitate politiko izateko borrokatu behar gara, ez adibide kultural moduan irauteko.

Estatugintzak erabakitze eskubidea du ezinbesteko geltoki?

Bai, batez ere, erabakitze eskubidea hainbat adieratan ulertu daitekeelako. Eskubide bezala ulertu daiteke, baina oraindik ez da. Nik proiektu politiko bat gauzatzea ahalbidetzen duen kontzeptutzat daukat. Hala, guk erabakiz gero izango dugu euskal estatu bat, eta euskal estaturik ez dugula nahi deliberatzen badugu ez dugu izango. Egikaritzean, jendeak erabakitzean, bihurtuko da eskubide. Momentuz erreklamazio, dei, edo aldarrikapen bat baizik ez da. Horregatik ikasi behar dugu eskoziarrendik erabakitze eskubidearen bidea informatze eta formatze prozesu bihurtzen. Galdeketa egin arte urteak pasa dituzte herriz herri hitz egiten, herri galdeketa oso modu egituratuan antolatzen, Liburu Zuria idazten... Erabakitze prozesua edukiz bete dute. Erabakia edukia da eta eduki masa hori batera landuz eraikitzen da gizarte demokratikoa. Jendea formatu, informatu, eta ahaldu behar dugu. Ezin dugu edukirik gabe erabaki. Horri kataluniarren mobilizatze gaitasuna gehitu behar diogu. Alderdien eta gizarte zibilaren arteko indar-harremana irauli dute. Aurrera egiteko gizarte mugimenduak alderdien morrontzatik askatu behar genituzke.

Estatua eta biolentzia sinonimoak direla aldarrikatzen dute estatuaren kontrakoek.

Indarkeriaren legimitatearen monopolioa estatuarena da. Hau da, lege estatuak soilik erabili dezake indarra. Hori hala, ez da ahaztu behar estatuak biolentzia egikaritzen duen gisan guk ere egunero egikaritzen dugula. Gizartea oso bortitza da, komunitatea zer esanik ez. Gizarte zein komunitatean indarkeriarik ez balego estatuaren ez legoke biolentziarik. Egia da ni ezin nintekeela genozidio batera iritsi, eta estatu bat bai, baina ahalmenarekin lotzen dut hori, ez izaerarekin. Estatuaren aurrekoa da biolentzia eta estatuak eraistean jarraituko du. Arazoa da biolentziaren kon-

NORTASUN AGIRIA

Jule Goikoetxea 1981ean Donostian jaioa. EHU eta Cambridgeko unibertsitateetan kazetaritza eta zientzia politikoak ikasia eta filosofian doktoratua. Egun, EHU zientzia politikoetako irakaslea eta *Gobernantza eta ikasketa politikoak* masterreko zuzendaria da, Cambridgeko Unibertsitateko *Journal of Politics*-eko editore elkartu izateaz gain. Prentsan zein aldizkari espezializatuetan argitaratzen ditu bere lanak eta *Tractatus* (Susa, 2014) poema liburuaren egilea da. *Polirika* blogean izango duzue bere berri.



Eskuekin

Elkarrizketa hasi orduko orri zuri eta bolaluma baten bila jaikitzeo baimena eskatu digu Julek. Mahai gaineaz utzi, bi hankak sofaz gurutzatu, eta haizeak hostoari nola erantzun die galderei. Elkarrizketaren hondarrean, orria zuri dago, bolaluma lo, eta Julek erantzunak, zigarroaren kea lagun, airean idazten zituela iruditzen zaio Dani argazkilaria.



tzeptua oso eremu jakinetara mugatzen dela, gauza batzuk indarkeriatzat dauzkagula eta beste batzuk ez. Sistema liberaletan bizi gara, eta demokrazia teorizatu duten jakintsu guztiek kanpotik datorrena izan dute biolentziazat. Hori irauli behar dugu. Guk nolako indarkeria darabilgun identifikatzeko baliabiderik ez badugu alferrik gabiltza. Asanblada batean 40 urteko gizon zuri profesional batek hitz egitea eta 70 urteko etxeko andre batek ez, biolentzia sinboliko izugarria da. Hor ageri da nola birstortzen diren botere kultural, ekonomiko eta soziala. Botere harreman horiek etengabeak dira, eta estatu izan ala ez, gure biolentzia identifikatu behar dugu, botere harreman horiek malgutu, ahalmenak berriz banatu, eta indarkeria murrizteko.

Euskal estatu feminista aldarrikatzen duzu zuk. Horrek sistema demokratikoaren oinarriak berplanteatzea eskatzen du. Demokrazia ez da soilik liberala, patriarkala ere bada, eta ondorioz, gizonezkoaren zein emakumezkoaren figurak kontestu batean eraikitakoak dira. Hala, non jaiotzen dira gizon arrazional, jantzi, eta kualifikatuak? Espazio publikoan, berdin artekotzat dugun eremuan, estatu moderno batek ahalbidetzen duen joko-zelaian. Hori mantendu ahal izateko ezinbestekoa da ezberdinen arteko eremu bat: espazio pribatua. Ezberdinen espazio horretan sartzen dira gaitz nontzeko guztiak: emakumeak, umeak, etorkinak... Oso ongi azaldu zuen Rousseauk eremu pribatuan mugitu behar zela emakumea, nola portatu behar zuen, zein jarrera izan. Gainera, demokrazia kapitalista da. Ondorioz, eremu publikoan aritzea ordaindu egiten da, baliabidez hornitzen, eta jabetza pribatua dutenak jarduten direnez bertan, eskubide sozio-ekonomikoak ziurtatzen dira berdintasuna bermatzeko. Aldiz, eremu pribatua ez denez berdin arteko espazioa, lege politiko zein sozio-ekonomikoak ez dira aplikatzen, ez da ordaintzen, eta espazio zabal eta anitz horri erreproduktzioa deitzen zaio. Gizonezkoek produktzioa, emakumezkoek erreproduktzioa. Horrela jai daukagu. Espazio banaketa horiek

hankaz gora bota behar dira, berriz asmatu, bestela emakumezkoek prekarietatean segiko dute, soldata murriztekin, eremu gutxietsi eta menostuetan. Hegemonia berriak behar ditugu zaharrak eraisteko.

Jendeak euskal estatu aldarrikatzen duenean zer nahi du, bestelako estatu bat ala "frantses" edo "espainiar" jartzen duen lekuan "euskal" ageri den estatu bat?

Gizartea konbentzionala da, eta alde batetik eskerrak, bestela agian ez bailegoke gizarterik. Hala, ideia, joera, eta jarrera hegemonikoak erreproduzitzeko inertzia du gizarteak. Jendeak euskal estatu irudikatzen duenean, ongizate handiagoko estatu zintzoagoa marrazten du, bestela orain daukanetik ez lukeelako atera nahiko batetik, eta besteak baino jatorragoak garelako pentsatzeko joera dugulako bestetik. Horrek ez nau kezkatzen. Badakit gehiengoak ez dela feminista izango, are gutxiago ni bezalako muturreko feminista, eta badakit "estatu feminista ala ezer ez" aldarrikatzea espainiar edo frantziar estatuaren alde egitea dela. Izan ere, eztabaida ez da estatu bai ala estatu ez. Bakoitzak berea, baina estatu badaukagu. Zeintzuk izango lirateke balizko euskal estatu baten abantailak? Orain ez ditugun onura linguistikoak izango genituzke, gure kultura politikoari hobeto egokitutako egitura litzateke, eta nire ustez, gutxi izanik, errazagoa litzateke proiektu minoritarioak bultzatzea. Ezin gara engainatu, jendea ez da masiboki mobilizatuko euskal estatu sozialista edo feminista baten alde, baina euskal estatu baten alde agian bai. Mobilizazioak masiboki pentsatu behar ditugu.

Mobilizazioak masiboki pentsatu behar ditugu baina subalternitateak egiten omen gaitu euskaldun.

Euskaldun hitzaren atzean arazo bat dago. Gehiengo handi batek identitate bati buruz hitz egiteko erabiltzen du, ez euskaraz dakienari oihartzun egiteko. Horregatik, agian euskaldun hitza jendeak darabilen adieran erabili behar genuke, *vasco*-ez ari garela onartu eta kito. Euskalduna izateak identitate bati erre-

ferentzia egingo badio, identitateak etengabe borrokan dabiltzan figurak direla hartu behar dugu kontuan, eta uneotan euskaldunak identitate subalterno bat gara. Subalternitate horretatik atera nahi badugu denok identifikatu beharko dugu euskal identitate subalterno hori. Hori da estrategia. Zure burua subalternotzat duzunean jartzen duzu borroka martxan. Ez da kasualitatea azken aldian euskalgintza eta feminismoa elkarrengana hurbildu izana. Euskalgintzan dabilenak, edo euskaldunak, bizi dituen arazoak subalternoa delako bizi dituela ulertzen badu, halabeharrez joko du subalternitatea identifikatu eta analizatu duten korronteetara, eta feminismoak oso modu integratzailean aztertzen ditu subalternitatearen aurpegi guztiak.

Han-hemenkako ertzeko suak elkarri konektatzea da alternatiba?

Ezagutzaren eta diziplinen arteko fragmentazioa sistema kapitalista neoliberalaren ondorio bat baino ez da. Hala, zatiketa horrek balio dezake analisirako, baina ez egiturazko proposamenak egiteko. Sektorizatutako guztia batera egikaritzean egiten duzu politika. Horrek aliantzak egitea esan nahi du, mugimenduen arteko gizarte mailako aliantzak, baina baita ezagutzari lotuak ere. Horregatik diot feminismoa dela

integratzaileena, subalternitatearekin lotutako borroka guztientzako aterkia baita. Berdin du zuria edo beltza zaren, pobrea edo aberatsa, feminismoak botere harremanak non-nahi identifikatzeko tresnak ematen dizkizu. Horiek oro elkarri josiz bihurtzen da sistema ikusgarri, eta aldi berean, sistemari kontra egiteko zerbait sistematikoa eraikitzen laguntzen dizu.

Garai politikoak datoz?

Aldibereko aldaketek dakarte krisia. Objektiboki zein subjektiboki krisi betean gaude. Hori diote datuek eta hala bizi du jendeak. Demokraziaren krisi parlamentarioak eta Europa osoan zehar barreiatu den ofentsiba ekonomikoaren bat egiteak lehertu du burbuila. Urteetan diruarekin estali da demokraziaren krisi parlamentarioa, baina sosak agortzean zulo guztiak geratu dira bistan. Parlamentuak, ordezkariak demokraziak, ez du funtzionatzen. Begi bistakoa da erabakiak ez dituztela gure agintariekin hartzen, lobby edo esku pribatuek baizik. Horrek mobilizazioak pizten ditu non-nahi. Jende asko bildu da politikara. Ez orain arteko moldeetan, baina jendea politizatzen ari da. Jendeak kontziente izan behar du oso garai politikoak bizi ditugula. Hurrengo bi urteetan, hurrengo 30 urteak baldintzatuko dituzten erabaki asko hartuko dira. ■



BULTZA KAZETARITZA INDEPENDENTEA EGIN HARPIDETZA

📞 943 371 545 • harpidetza@argia.eus • www.argia.eus/harpidetza

 **argia**

Sega, erreminta moderno hori

Indarrean dator berririo sega. Betiko dailu zaharra, kodaina. Ez bakarrik itxura ekologista cool bat ematen duelako. Asko ohartu dira belarra ebakitzeko, pentze handietan irabazten dion segamakina handiaz landa, eskuzko lanabes zaharrak ez daukala konkurrentziarik. Sinplea da, merkea, isila eta... eraginkorra.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ASTIALDIETAN baratzezaina den lagun kaletar bat, gorpuzkeraz zein sasoiz batere Olasagasti ez dena, 2013ko larunbat goiz batez errezelatu zen aitaginarrebak lagatako sega zaharra hobeto zihoakiola emazteak erositako *desbrozadora* berri-berria baino: froga egiteagatik hasirik belar sail handiagoa moztu zuen batere zaratarik gabe, gasolina erre kiratsik gabe... eta, harrigarria, gehiegi nekatu gabe, aitzurrean arituta baino askoz gutxiago. Mundu osoko jende askok frogatua du gauza bera. Horregatik dator modan sega.

Tresna zahar xumea da sega, dailua eta kodaina ere deitua. Izen guztiak euskarak auzokoei hartu dizkie, lanabesa ere inportatua baita. Diote adituek gaur Turkia den eremuetan bizi zen Eszita herriak sortu zuela. Kasualitatea ez da izango ingelesez jende horiek eta tresnak izen bera eramatea: *Scythe*. Erromatarrek berengantatu zuten. Europan X. mendetik aurrera zabaldu zela dirudi. Aurretik igitaiak egiten zituen lanak burutzeko.

Ondo begiratuz gero, dailua igitai handi bat da. Mende luzez aziendentzako belarra mozteko usatua, garia eta garagara uztatzeko bezala. Igitai handi eta konplexuagoa: burdinazko ahoaz gain dauzka kirtena, eskuentzako helduleku bat edo bi eta ahoa kirtenari lotzeko metalezko uztaia eta xafla txiki bat. Lana ere ezberdin egiten da igitaiarekin eta segarekin.

Dantzan aritu behar duzu segan: bi zangoak zabalik eta belaunen gainean bermaturik, aurrean duzun belar-koska xerratan bezala ebaki behar duzu bi eskuetan lurzorua doidoi ukitzen duela darabilzun burdinazko xaflarekin, besoen eta gerriaren mugimendua baliatuz... Ikasi egin behar da. Hasieran segaren muturra lurrean sartuko zaizu, edo ebakitzeko *xerra* handiegi markatu duzulako traba-

tuko, pittin bat kostatuko zaizu eroso aritze-ko neurri egokiko maila hartzen, edo zelaian *bizarrak* geratuko zaizkizu gero beste kolpez moztu beharko dituzunak. "Segan ari haiz, ez aitzurrean" entzungo diozu erakustaileari.

Patxada bat eskatuko dizu segak, belazea pazientziaz mailaka eta xerraka moztu behar duzulako. Baina pixkanaka erritmo batean sartuko zara, fite aurkituko dituzu sega-kolpeei egokituko zaizkien doinuak. Ohartzerako, segaren erritmoarekin batera inguruko hotsen jabe ere egin zara, basoko okila edo haizearen aldaketa sentitu dituzu, edo ingurutik pasatzen den autobia, belazea lurrintzen duten usainak ere bai. Gasolinazko motosegarekin zigorra den malda bera dailuarekin gerta daiteke estre-

sa baretzeko lasaigarri. Aurkituko dituzu segan jardutea Zen ariketarekin parekatzen dutenak. Segaren mistika.

Teknologia apala, eraginkortasun handia

Oro dauka iraunkor segak. Oro apal: prezio, teknologia, gastu, kutsadura. 100 euro ingurutan

eros daitekeen segak mantenua merkea du. Aho hilgarria duen xafla zorroztu sarritan, segaldia etenez arnasa hartzeko. Arraitzaren hotsak ere badu bere zera. Eta usatuaren poderioz burdina loditu zaionean, pikatu egin behar da; onena lehen bezala mailu eta ingudez egitea omen den arren, gaur askok prentsa berezi batez egiten dute. Gainerakoa, ez gasolina, ez olio, ez mekaniko, ez bujia... Urte luzeko bizia du segak.

Teknologia apaleko tresna izanik baditu bere martingalak. Dailua hobeto edo trake-*tsago* dantzatu aldea dago, prefosta. Ongi arraiztea, zorroztea alegia, hori ere funtsezkoa, eta ahoa kamustu zaionean pikatzea, mailuz jotzea. Lanabesa segariaren edo erabili beharreko eremuaren arabera diseinatzea

Tresna zahar xumea da sega, dailua eta kodaina ere deitua. Izen guztiak euskarak auzokoei hartu dizkie, lanabesa ere inportatua baita



ONE SCYTHE REVOLUTION

Mary Montes, AEBetako Hego Kalifornian sega ikastaroak ematen dituena, dailua arraizten.

ere bai. Diseinatu? Gakoa segak kirtenarekin bat egiten duen tarte horretan datza.

Gipuzkoako Asteasun Florentino Maioz ezaguna da neurrira prestatutako segak nahi dituztenen artean. Harengana jotzen omen dute herri kiroletan dabilzan askok. Segaren burdina bera komertzioetan erositakoa da. Maiozek tresnaren ipurdi edo opo alde goritu eta manipulatu du, segariaren gerriera eta egin beharreko lanera egokitzeke. Ez da berdin lan egiten zelai ordokietan eta malda gogorretan, batek zutikago nahi du, besteak kolpe bakoitzean maila zabalagoa harrapatu, urliak indar gutxiago eginez aritu nahi du, hau apusturako lanabes efikazaren bila dabil, beste hura bere bizkar zahartuari egokitutakoaren bila.

Asteasuko segagileak aitona izan zuen segalari famatua, Florentino Maioz hura ere, badu sarrera entziklopedietan. 2015ean biloba arotzak tresnak prantatzen ditu besterentzako. Berak egiten ditu kirtenak etxeko lizarrez. Burdinazko pieza txikiak forjari lagun batek. Segahoa, aldiz, Austriatik ekarriak dira.

Gurean famatuak izan omen ziren Bellota markakoak, Patricio Echeverriarenean Legaz-

pian eginak. Fini, bai marka eta bai 'euskal sega', esateko modu bat da, orain etortzen direnak baino aho zabalagoa zuena. Oraindik ere ba omen dira segalariak haiek atxikitzen dituztenak, norgehiagokatarako altxor moduan, gure belarretarako egokiagoak direlakoan. Florentinok dio ez duela lortu Austrian berak nahi bezala kopiatzea hemengo ereduak. Ez aipatu hemen Txinatik ekarritako kopiarik.

Ekologi gaitan ezaguna den Paul Kingsnorth britainiarrak idatzi du segaren aldean *desbrozadorak* dena duela kalteko. Moto baten arrabotsa, kea eta kiratsa, erregai fosilen egarri beti, arriskutsuagoa, saila ebakitzen ez azkarra-goa, lanerako gogaikarriagoa... Orduan, zergatik gailendu zaio traste nardagarri hori?

"Ez motosegak hobeak direlako, baizik eta teknologiarekiko gure jarrerak horretara garamatzalako. Kontua ez da eraginkortasuna, erlijioa baizik: konplexutasunaren erlijioa. Progresoaren mitoak makinaren itxura hartu du. Plastikoak hobeak dirudi zurak baino. Asko mugitzen direnak geldoak baino. Burrunbatsuak hobe isilak baino. Konplikatuak hobe sinpleak baino. Berria hobe zaharra baino. Gu ohartu ala ez, hori da erosten duguna".

Baina sasi garbitzeko makina isilik ez baitute oraindik asmatu, gero eta jende gehiago ari da itzultzen betiko segara. Alde batera utzirik herri kiroletako parafernaliak, segan ikasten hasi dira baratzegintzan hasi diren kaletarrak, gurasoengandik hereditutako lursailen bat garbi mantendu nahi dutenak, baita herri-lanetan ari diren enplegatu publikoak ere Europako zenbait udalerritan.

Euskal Herrira ere iritsiko da albiste. Bizikleta hiri moderno batentzako aurrerapena izan zitekeela erakutsi zen moduan, noizbait ohartuko gara Honda eta Stihl sega motordunena ere moda kontua izan dela. Teknologia konplexuzko eta gastu handiko tresnak mitifikatzearen ondorio agian pasakorra. ■

Igitaia, sega eta... generoa

Sega emakumeen baztertzailer? Britainia Handian bederen hala gertatu zela dio Simon Fairliek "Notes on the History of the Scythe and its Manufacture" artikuluan. XVIII. mendea arte gari, garagar eta bestelako laboreak igitaiz ebakitzen ziren: esku batez eutsi, bestearekin ebaki, biekin sortatxoa osatu eta aurrera. Igitaiez gizonekin buruz buru lehiatzen omen zuten emakumeek. Alegia, gizonak bezain gai zirela lurjabeen soroetan jorna irabazteko. Sega sartu zutenean, guk ezagutzen dugunaren bi halako pisua duen dailu ingeles zamatsua gainera, gizonak geratu ziren segalari emakumeak paga merkeagoko gradura jaitsiz, bilketa lanetarako. Muturreko bat gehiago emazteen autonomiari. Perfekturik ez dago ezer, ezta sega ere.

TANTAI

Oztoporik gabeko aisia aniztasun funtzionala dutenentzat

Leku berriak ezagutu, kirola egin, zinera joan, museoak bisitatu... Aisialdia gozatzeko maiz zailtasunak aurkitzen dituzte aniztasun funtzionala duten pertsonak. Gabezia horri erantzuteko jaio da “Tantai: oztoporik gabeko aisia” ekimena.

| JUDITH PEREZ |



“Guretzat oso garrantzitsua da azpimarratzea ez direla minusbaliatuak, baizik eta gauzak beste modu batean egiten dituztela. Ez dira elbarriak, edo ahalmen urrikoak, edo dena delakoa, aniztasun funtzionala duten pertsonak baizik”, dio Irazabalbeitiak.

ANIZTASUN FUNTZIONALA dutenek aisialdiaz ezin dutela modu duinean gozatu salatu dute Ane Mendizabal zarauztarrak eta Alba Irazabalbeitia donostiarrak, Tantai proiektuaren sortzaileak. Gure inguruneak eta kultur eskaintzak ez diote aniztasunari erantzuten, “aisia eta turismo arloetan egiten diren ekin-tza gehienak ez daudelako aniztasun funtzio-

nala duten pertsonen beharretara egokituta”, dio Mendizabalek. Horregatik hasi dira ekin-tza egokitu eta inklusiboak antolatzen.

Beste askoren artean, kirol egokitua, txangoak, tailerrak eta ikastaroak antolatzen ditu Tantaik, gutxieneko partaide kopururik gabe eta urte osoan zehar. “Eta norbaitek bestelako ekintzaren bat egin nahi badu, gurekin

harremanetan jar daiteke, eta egin nahi duenaren arabera, bere beharrak aztertu eta horietara egokitutako eskaintza prestatuko dugu. Guk egiten dugu lan guztia, beraiek ongi pasatzeaz baino ez dira arduratu behar”, azaldu digu Mendizabalek.

Ikuspegi turistikotik, urtero milaka dira aniztasun funtzionala izan eta bidaiatzen duten lagunak. Horregatik, turistentzat zuzendutako ekintzak ere prestatu dituzte: “Batez ere bisitaldi gidatuak, Donostian eta Gipuzkoan zehar momentuz, hasten ari gare-lako”, argitu du Irazabalbeitiak.

Historiaren Artean lizen-tziatuak dira bi gazteak. Turismoa ere ikasi du Mendizabalek, eta Irazabalbeitiak turismo egokituari buruzko ikastaroa du egina, Larrialdiak Fundazioaren eskutik. “Larrialdiak Fundazioan denbora zeramaten aisia eta turismo egokituaren inguruan gogoeta egiten, zerbait egiteko gogoz, baina ideia zehatzik gabe. Nirekin harremanetan jarri ziren laguntza eske, eta ondoren ni Anerekin”, azaldu du Irazabalbeitiak.

“Lan asko dago oraindik egiteko”

Aniztasun funtzionala dutenen beharrei erantzuteko gure ingurunea gero eta egokituagoa dagoela eta azken urteotan aurrerapauso nabarmenak egin direla uste dute bi elkarrizketatuek, batik bat zerbitzu publikoetan. Turismoan, aisian eta beste hainbat arlotan, ordea, oraindik gabezia garrantzitsuak daude. “Dena den, ezin dugu esan ez denik ezer egiten, kolektibo honen eskubideen alde gogor borrokatzen ari diren elkarteak daude eta gauza asko lortu dituzte”, dio Mendizabalek. “Arlo instituzionalean hobekuntzak nabaria-goak dira. Gainontzekoetan oraindik lan asko falta da egiteko”, gehitu du Irazabalbeitiak.

Ekintzak antolatzeke orduan, irisgarritasuna da garrantzitsua, “guretzat garrantzirik ez duena erabakigarria izan daitekeelako aniztasun funtzionala duen norbait leku horretara joan edo ekintza hori egin ahal izateko”

Aldea nabaria da Europako beste herrialdeekin konparatuta, adibidez: “Nazioarteko museo garrantzitsuetan, orain gor eta itsuek audio-deskribapenak edota zeinu hizkuntzako interpretea eskura dituzte bisitaldi gidatuak jarraitzeko, margolanen azalpenak ere braillez agertzen dira... Hemengo museo batzuetan hasi dira hori egiten, baina esango nuke gauza nahiko berria eta salbuespeneko delako. Hala ere, gutxinaka-gutxinaka hobekuntzak ikusten ari gara”, adierazi du Mendizabalek.

Euskal Herrian, zaila da kolektibo honentzat guztiz egokiturik dauden ekintzak aurkitzea. “Gaur egun, esaterako, oso modan dago tabernetan kontzertuak ematea, baina beharbada sarrera estuegia da gurgil-aulkik bat sartzeko, komunak oraindik ez daude prestatuta leku askotan, edo hitzaldi batera zoaz eta ez dago zeinu hizkuntzako interpreterik pertsona gorrentzat”, dio Irazabalbeitiak. “Aniztasun funtzionala

dutenei bideratutako pintxo-potea antolatzen saiatu ginen duela gutxi, eta konturatu ginen Donostiako Alde Zaharra oso gaizki dagoela gurgil-aulkiz mugitzeko”, jakinarazi du Mendizabalek.

Ekintzak antolatzeke orduan, irisgarritasuna da kontuan hartu beharreko alderdirik garrantzitsua, “xehtasun txikiak beste guztia pikutara bidali dezakeelako. Guretzat garrantzirik ez duena edo aintzat hartzen ez duguna erabakigarria izan daiteke aniztasun funtzionala duen norbait leku horretara joan ahal izateko edo ekintza hori egin ahal izateko”, argitu du Irazabalbeitiak.

Sentsibilizazioa

Ahalmen urriko, elbarri, ezgaitu... deitu izan zaie aniztasun funtzionala duten pertsonen,

GUIKURI
nekazal etxea



Guikuri, 1 • 01138 Murua (Araba)
T 945 464084 / 615782323
guikuri@euskalnet.net
www.guikuri.com





Ane Mendizabal (ezkerrean) eta Alba Irazabalbeitia, Tantai ekimenaren sortzaileak.

baina adiera horiek okerrak direla eta oker erabiltzen ditugula ohartarazi dute elkarrizketatuek. “Guretzat oso garrantzitsua da azpimarratzea ez direla minusbaliatuak, baizik eta gauzak beste modu batean egiten dituztela. Ez dira elbarriak, edo ahalmen urrikoak, edo dena delakoa, aniztasun funtzionala duten pertsonak baizik”, dio Irazabalbeitiak. Horregatik, kalitatezko aisia eskaintzeaz gain, Tantai gizartea sentsibilizatzeko ere balio dezala nahi dute sortzaileek. “Sarri ez dira ezarritako

gutxienekoak betetzen, eta gizartea horretaz jabetzea nahi dugu”.

“Inkesta egin genuen Tantai sortzen ari ginenean, eta guk uste baina herritar gehiagok esan zigun agian ez zutela aisia edo turismo ekintza batean parte hartuko aniztasun funtzionala duen pertsona bat egotekotan”, azaldu du Irazabalbeitiak. “Beste galdera batek zioen: ‘Uste duzu guztion lana dela aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusibitatea erraztea?’. Bada, askok erantzun zuten erakundeen lana dela hori, ez guztiona. Horrek ere asko kezkatzen gaitu”, gehitu du Mendizabalek. Hala ere, gizartea gero eta sentsibilizatuagoa dagoela uste dute, belaualdi berriak batez ere. Horrez gain, aniztasun funtzionala duten biztanleen presentziak eta ikusgarritasunak gora egin du nabarmen gizartean, eta hori datu oso positibotzat jotzen dute Tantaiko kideek.

Integraziotik inklusibitatera

Tantaik antolatzen dituen ekintzak, egokituak bakarrik ez, inklusiboak ere badirela nabarmendu dute Ane Mendizabalek eta Alba Irazabalbeitiak. Edonork hartu dezake parte, aniztasun funtzionala izan edo ez. Integrazio hitza alboratu eta inklusibitatea erabiltzearen aldekoak dira: “Pertsonen buruz hitz egiteko ‘integrazio’ hitza erabiltzea desagokia dela uste dugu. Integrazioaz hitz egiterakoan bereizketa moduko bat egiten dugu: zuek alde batetik eta gu bestetik. Zuek zarete ‘ezberdinak’ eta integrazten zaituztegu. Baina ez du hala izan behar. Pertsonak gara denak”, dio Mendizabalek. “Ez da bidezkoa norbait baztertzea besteen begietara ‘ezberdina’ delako. Azken finean, modu batean edo bestean guztiok gara ezberdin, eta guztiontzako lekua egon behar du gizartean”, aldarrikatu du Irazabalbeitiak. ■

Leku irisgarrien gida

EAEko toki publikoen irisgarritasunari buruzko gida da Ararteko Mapak. Euskadiko Herriaren Defendatzaileak garatutako proiektua da, eta sakelakoan dohainik deskargatu daiteke. Ostatuak, jabetxeak, liburutegiak, tren geltokiak... zenbateraino diren irisgarriak kontsultatu daiteke, aplikazioaren bidez. Erabiltzaileak, gainera, iruzkinak egiteko aukera du, bere esperientziaren berri emanez.

Inguru
ABENTURA

- Abentura kirolak
- Ezkonurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidaiak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18. Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com





DANI BLANCO

Mikel Zurbano



EHUKO

IRAKASLEA,

EKONOMIALARIA

Irabazleak

BANKUAK eta hauen inguruko araugintza eta kontrol urria egungo krisiaren erantzule nagusiak dira. Europako zein Amerikako Estatu Batuen esperientziek argi erakusten dute bankuen erantzukizuna, herritarrek uste hori berretsi egiten dute. Espainiako Estatuan eta Hego Euskal Herrian banka sistemari egiten zaizkion kritikak Europako batez bestekoaren gainetik daude.

Nolanahi den ere, paradoxikoa da krisian zerikusi garrantzitsua izandako beste eragile batzuek –hala nola alderdi tradizionalak edota korporazio mediatikoak– narriadura izugarria pairatu dutenean banku handiek beren posizioa indartu egin izana. Esaterako, inkesta gehienetan errepikatzen da Espainiako Estatu bipartidismoak boto asmoaren arabera 25 puntu inguruko galera izan duela eta egunkari handiek beren irakurleen %40 galdu dituztela. Estatu banku nagusien merkatu kuota, aldiz, bere gailur historikoan dago: krisiaren aurretik banketxeek ez zuten jasotzen herritarren gordailuen %50 ere, kutxek hartzen baitzuten gehiengoa, baina gaur egun gordailuen %90 bankuen esku dago. Jakina denez, kutxen desagertzeak sektoreko berregituraketa eragin du eta herritarren kutxetako gordailuen gehiengoa banketxeetara bideratu da.

Estatuko banku nagusien merkatu kuota bere gailur historikoan dago: krisiaren aurretik banketxeek ez zuten jasotzen herritarren gordailuen %50 ere, kutxek hartzen baitzuten gehiengoa, baina gaur egun gordailuen %90 bankuen esku dago

Bestalde, Estatu banketxeek hamar-kadaren hasieran izandako galeren gehiengoa Europako Batzordeak estimatutako 90.000 milioi euroko laguntza publikoa jasota kitatua izan da. Gobernuak horren herena baino gehiago galduzatat eman du dagoeneko, baina etorkizun-

nean kopuru hori are gehiago handituko dela ikusiko dugu. Horregatik guztiagatik, errentagarritasun mailarik gorena berreskuratu dute Espainiako Estatu finantza erakundeek. Alta, 2014 urtea aspaldiko onena izan da banketxeentzat –Espainiako Bankuko datuen arabera– mozkin garbiak %36 igo baitira aurreko urteko mozkinen aldean. 2015 urterako aurreikuspen batzuek mozkinen igoera handiagoa iragartzen dute. Europako Banku Zentralek irekitako aparteko finantzazio lerroak eta ogasunetik jasotako traera onuragarriak zerikusi estua izan dute errentagarritasunaren hazkundearekin. Izan ere, emaitzen hobekuntza hau gertatu da bankaren negozio bolumena jaisten ari den unean, kreditu bolumenaren azkenaldiko jaitsiera da horren erakusle nagusia. Azkenik, banka negozioaren biziberritzearen arrazoi gehigarria sektorean egon den lanpostuen galera izugarria da –2008 urtean baino 60.000 lanpostu gutxiago dago orain eta bulego sarea ere %30 murriztu da–.

Alabaina, krisiaren aurreko errentagarritasun maila apaldu izana Estatu finantza boterearen kezka bihurtu da, batik bat interes tasek izan dituzten jaitsierek eraginda. Horren aurrean bankuen bategiteak eta irensteak bultzatu nahi dituzte, gehienbat Kutxabank bezalako tamaina txikia duten finantza erakundeen artean. Ohi legez, finantza eliteak botere oligopolikoaren egarri dira eta finantza ereduaren oinarritzko beharretatik areago urruntzeko arriskua bistakoa da.

Haatik, finantzetako bestelako eredu baterako lehen zantzuak agertzen ari dira han-hemenka, lankidetza eta elkartasun baloreak atxikita eraikitzen eta hedatzen ari diren Fiare, Coop57, Triodos... gisako finantza entitateen esperientzien eskutik. Erantzun politikoaren esku ez ezik finantza kontsumitzaileon esku ere badago irtenbideak bilatzea arlo garrantzitsu honetan ere. Etorkizuneko finantza eredu solidarioa eta konpromisodunaren haziak zabaltzeko erantzukizuna dugu, irabazleak guztiok izan gaitezten. ■



Danele Sarriugarte

♦ IDAZLEA

Errenta-aitorpena

IKASTURTEKO EZ EZIK etorkizun hurbileko azken *Zirta* dudan honetan atzera begira jarri naiz: zer idatzi ote dudan irailean ekin nionetik hona. Artikulu guztiak gorde ditudan karpeta zabaldu eta egiaztatu dut batik bat literaturaren eta sormenaren bueltan ibili naizela, batzuetan gai nagusi, beste batzuetan zeharlerro eta beste hainbatetan makulu. Izen propioak aipatzean adibideak franko baliatu ditut hemendik kanpokoak, baina beren-beregi horretara jarri ez naizen arren, igarri dut, era berean, izan dudala kezka bat buruan euskal literaturarekiko. Ez hainbeste testuekiko, balizko aniztasun edo salmenta eskasarekiko, euskara batu ez nahi bezain koloretsuarekiko. Norberaren betaurrekoak zer diren, komunitatean nola bizi garen izan dut ardura-iturri, komunitatera heldu berritan nola kokatu daitekeen bat, nahiko tupustean izen propio bihurtu denean.

Ikasturte honetan lagunekiko solasaldietan erdiguneko gai izan dut, ezagun eta ezagutu berri askok esan didaten moduan “azkenaldian toki guztietan ikusten zaitut” edo “a zer arrakasta, maja” prozesu batek zeharkatu naudelako estreina idatzitako eleberriarekin. Egozentrismoa iritzieta luzaroan baztertu dudan arren gaia, zintzoa izan nahi dut eta elkarriketetan inertziak baina egia esaten diren “oso pozik nago”ez aparte, buruko minak edo ondorioak ere nahi nituzke hizpide hartu.

Gurearen gisako testuinguru batean arrakastaren aparrak txikiak dira, noski, nola diren txikiak ahalegin berezirik egin gabe egunean hiru jatordu aho-ratzen ditugunon tra-


gediak etxepeko Kutxabank-bulegoan lo egiten duenaren problemekin alderatuta. Ez gara, ordea, absolutetan bizi, ezpada erlatiboetan, eta bere buruhausteek bizi dute pertsona. Beraz, gailurrera bidali ninduten, nire sakonegi hausnartu gabeko oniritziarekin, nahiko aise eta (egindako lana gutxieteko asmorik gabe) liburu bat baizik ez argitaratuta. Gailur zenbaitek geure buruaren neurria ematen digute beren handitasunean: zinez, ez gara ezer, geure haragi honetatik eta egin ditugunetatik landa. Beste batzuek, baina, begirada lausotu dezakete, eta sinetsarazi nahiko duin gauzatutako lan bat horixe bera baino askoz gehiago dela. Izan ere, lan horrek mila leiho zabaltzen dizkizu, mila kolaborazio, eta ahatz dezakezu zure aurretik eta zure aldi berean beste hamaika direla zu bezalakoa, igo zaituzten bezala jaitsaraziko zaituztela efimero, zu ez zarela soilik besteek zugan fresko edo interesgarri uste dutena.

Ahantz dezakezu zuri idaztea gustatzen zitzaizula eta ez Danele Sarriugarte izatea.

Akaso ez zaie denei gertatu baina niri bai behintzat: ardatza erabat galdu ez arren, deserosotasun bat pertsonaia publikoaren eraikuntzarekiko, jendarekoa ere baden jardun bat jorrazteari uko egin nahi izan gabe, bere alde onak eskertzeari utzi gabe. Gure mikroklima honek apropos betetzen ditu aparraldi apur bat buiatuegi bat sortzeko baldintzak, eta hori kudeatzen ez zidan inork erakutsi.

Edonola ere, zerbait egin dut ondo, eta hori ez da izan, hainbeste, egoerak zorrotz analizatzeko kapaz izatea edo esaldi luzeak ondo jostea, ezpada inguruan hartzea botaka egiten dudanetan lepatzea umeltzeko gertu daudenak. Nire telefono-agendako bost zenbaki izarrei esker ez naiz zeharo lurrundu.

Jakin banekien, baina ikasi dut txistuak bezain arriskutsu suerta daitezkeela txaloak ere, behar den moduan digeritu ezean. ■



Antton Olariaga

Bixente Serrano Izko

GEROA BAIKO DIPUTATUA ♦



DANI BLANCO

Herri botoak eta gero hau!

SANFERMINETAKO bezperaren bezperan nago, desberdinak izanen direlakoan aurtengoak. Aspaldiko ene ohituran jarraituko dut halere: Iruñetik kanpo bizi izanen ditut, nahiz eta ohiko arrazoiengatik ez izan. Opor egun lasaigoak pasatzera ihes egin ohi diet sanferminei aspalditik, lan beharrak behartuko nau aurten Iruñetik aldentzera.

Baina sanferminak beraiek desberdin hastear daude, zorionez. Guztiz desberdin ez, alta. Ez behintzat nik neuk nahi bezain desberdin. Alkatearen agerpen instituzionala prozesioan, adibidez. Zezenketetan, udal lehendakari-tza, adibidez. Desilusionatu agertu zitzaidan atzo ene betiko lagun bat prozesioaren kontuan. Zezenketei buruz hitzik ez egin arren, seguru nago gai horren inguru ere berdin uste duela. Erakundeetatik egin beharreko lan pedagogikoa aipatu zidan. Aldakuntzak, bai, sakon eta sendo izan behar duela, eta horretarako urrats neurtuetan ibili behar, baina populismo mota batzuei, klerikalismoari adibidez, men egin gabe, teorien behintzat konstituzional den laikotasunaren (erlijio eta estatu arteko bereizketaren) joko-zelaian arituz. Ados ni, pedagogia lanbide izan dudaren aldetik, ene lagunak oraindik ere duen bezala, baina baliabide eta agertoki desberdinetan ibiliak

biok: ertaineko irakaskuntza publikoan ni, adin eta mota guztietako irakurleei begira argitaratze lanean dabil laguna.

Zaila bada pedagogia kontua eskolan, are zailagoa kalea, hiria bera denean eskola, adin eta tradizio eta formakuntza eta aurreiritzi eta mito eta gustu eta interes guztietakoek osaturiko gizarte oso bati begira jarduteko orduan. Ikasgelan, ezin irakatsi nahi geni-

tuzkeen ikasgai guztiak lehen egunean. Pedagogia prozesu bat da, luzea, neurtua, lehentasunak eta urrats bakoitza nola edo hala planteatu beharrekoa. Eskolan. Are gehiago kalean, hain zuzen ere umeak ez direlako herritarrik.

Aspaldi ezagutzen dut gure alkate berria, hainbat jardunetan kide izan gara, elkarrekiko estimukoak. Ez nion botoa eman, baina pozak bete

ninduen Joseba Asiron zerrendaburu agertzen ikustean, agertze horrek berak ene ildoko ez ziren hautagaitzetan ere zerbait aldatzen ari zela adierazten zuelako. Eta poztu nau, ene kutuneko hautagaia haren atzetik gelditu denez, Asiron alkate ikusteak. Ene konfiantza osokoa dut, II. Errepublikatik hona Iruñeko alkaterik onena izanen delakoan. Prozesio eta zezenketa kontuen despit (oi Hemingwayk egin zigun!). Pedagogia sendoak urrats txikiak eskatu. ■

*Ez nion botoa eman,
baina pozak bete
ninduen*

*Joseba Asiron
zerrendaburu
agertzen ikustean*

DANI BLANCO



**Itxaro
Borda**



IDAZLEA

Aski malko

IRAGAN EGUNEAN, aldizkari honetan, Antza eta Iparragirre ETA kideekiko elkarrizketa irakurtzean ideia batek inarrosi zidan gogo: kondenaren ildotik, euskal presoek, kartzelara iristean, zaindariak Dostoievskiren *Krimena eta zigorra* eleberria oparitu beharko liekete. Atxiloek, herriaren askatasunaren fagoretan kunplitu krimen funtsa eta hauen larritasunaren araberrako gatziguaren onartzea zein premiazkoa den ikasiko lukete hor. Paperean hargatik, bi buruzagiak irrealitate malenkoniatsu betean igeri dabiltzala iruditut zitzaidan, inguruan ezer aldatu ez bailitzan.

Bizkarra emateak, damutzeak, salatzeak eta menturaz aurkariaren artean gatazkak kaltetuak –eufemismoaren tapakia– aurkitzen direla ohartzeak lagunduko lituzke borrokaren mundu morbidotik beste mundu humanoago, inperfektuago, errealago batera pasatzen.

Ordez, mila bider harilkatu diskurtsoak botatzen dizkigute: biktimak beraiek dira eta etsaiak oraindik ere Frantzia eta Espainia entzun gogor ziztrinak, non ez diren presoek eta errefuxiatuen gaia ahanztear dauden euskaldun arruntak. Nostalgia negartiaren garaia bukatu da.

Horrela da Raskolnikov erraldoia... ■



Iván Giménez

♦ KAZETARIA

Politika: norbait haserretzeko beharra

NAFARROAN, orain, dena da berria, orain dela gutxi imajinaezina, errealitatetik kanpoko ametsa, ukiezinaren zerbait. Horregatik, dena da ezegonkorra, ezezaguna, agian badaezpadakoa. Horrek, berez, sortzen duen beldurra oso naturala da. Umeak bezala, gauez etxe ezezagun handi batean murgiltzen garenean, iluntasuna da nagusi, eta beldurrak estutzen gaitu, modu irrazionalean. Iluntasun horretan, ez dakigu arriskuak nondik etor daitezkeen, eta horrek ere izu kontrolaezina sortzen du gudan.

Atzera ihesean ez bagoaz, aurrera segitu behar dugu, eta pixkanaka begiak iluntasunera ohitzen dira, zerbait ikusten hasten garen heinean beldurra apaltzen da eta arriskuak nondik etor daitezkeen sumatzen dugu. Kontuz zulo horrekin! Kasu eskalonak! Eta abar. Gero eta seguruago ibiliko gara.

Nafarroa horrelako egoera batean dago, bi jarrera egon daitezke: esploratzaileak izatea, oihan ezezagun batean aurrera segituz, ala beste batzuek mapak noiz eta nola egingo dizkiguten zain geratzea. Azken hau

Elkarrizketetan edo mitinetan ongi dago “nafar guztion gobernua izango garela” esatea. Agian hori esan behar da, ez dakit. Baina hori ezin da horrela izan. Gobernu guztietan hartzen diren erabakiak batzuen mesederako eta beste batzuen kalterako izanen dira, nahitaez

hautatzen badugu, arerioek euren bidetik eramango gaituzte, euren mapen arabera jokatu dugu eta ez dugu egin behar genuena egingo. Jakina denez, lurraldeak ez du mapa marrazten, mapa da lurraldea sortzen eta mugatzen duena. Guztiz alderantziz orduan.

Zeren beldur gaude, egiatan? *Diario de Navarra* kontu suitzar bat (edo horrelako zerbait) tiradera batetik aterako ote duen? Hori gertatuko ez delakoan gaude. Orduan? Evaristok abesten zuen bezala: “Eta orain: zer egingen didazue?”.

Elkarrizketetan edo mitinetan ongi dago “nafar guztion gobernua izango garela” esatea. Agian hori esan behar da, ez dakit. Baina hori ezin da horrela izan. Gobernu guztietan hartzen diren erabakiak, batzuen mesederako eta beste batzuen kalterako izaten dira, nahitaez.

Adibide bat: politikari guztiak zerbitzu publikoen alde omen daude, baina hori egia izateko (eta errealtatean mamitzeko) interes pribatu zehatz batzuen aurka jo behar da derrigorrez. Hau da, benetako boteretsuak molestatu behar ditugu, eta desberdintasun sozialak eratzen dituzten egiturak desegin behar dira. Neurri aringarriak (errenta soziala, jantoki publikoak...) indarrean jartzea ezinbestekoa da, baina horrek ez du mundua aldatzen.

Argi eduki behar da politika interesen talka baino ez dela, gatazka amaigabea azken finean.

Interes kontrajarrien arteko kontsentsuak bilatuz (beti inor ez mintzeko beldurpean) guztion alkatea edo lehendakari izan nahi duena, azkenean betikoen alkatea edo lehendakaria izango da, eta kasu batzuetan ohartu gabe gainera. ■



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

28 galdera euskal kulturari

1

Zer hizkuntza, zer
arropa daramatzagu?
“Euskal”-ek nongo
nortasun agiria du?
Identitate
krisi bat ote daukagu?
Gu bagara nor
baina nor ote gara gu?



WIKIPEDIA

**Beñat
Gaztelumendi
Arandia**



2

Nola ikusten
ote dugu ari dena?
Exotikoa,
gutxitua, indigena...
euskal kulturak
zein ote du abizena?
Guk hautatua
edo jarri zigutena?

3

Bertsoa, Rapa,
ahots fin edo lodia;
Etxeparek zein
luke gaurko melodia?
Harria edo
haria da memoria?
Nola kontatzen
dugu gure historia?

4

Batzutan eten
eta besteetan jarraitu:
Zer hasi dugu
eta zerekin amaitu?
Kulturak beti
performance itxura baitu
egiten dugun
horrek zer egiten gaitu?

5

Euskal kulturak
zein ote du hiriburu?
Nork ezkutatzen
eta ikusten gaitu gu?
Gure ekintza
eta gure testuinguru;
egiten dugun
hau nondik egiten dugu?

6

Noizbait leihoak
zabaltzeko ametsean
gu ote gara
nagusi gure etxean?
Ba al da kultur
sistema aldrebesan
ertzik zentroan
eta zentrorik ertzean?

7

Zein pausu eman
dira gure enparantzan?
Zertan gabilta
seguru edo zalantzan:
gu ekinen
edo besteen esperantzan?
Nori helduta
ibili nahi dugu dantzan?

8

Besteenak ote
dira gure metodoak?
Bafletik dio
idazlearen gogoak:
ez ote gara
gu, ameslari zoroak,
Cervantes izan
nahiko genukeen moroak?

9

Zer ote gara
behe-lainotako “euskal”-ak:
txiki bat edo
bi handiren sukurtsalak?
Muga estuak
dauzkanez mundu zabalak
mundu guztiak
al dira unibertsalak?

10

Gu zenbat gara:
bi milioi edo bost mila?
Zer gara jende
umildu edo umila?
Ziklo berrian
norantza doa gurgila?
Erantzun edo
galdera zuzenen bila?

Doinua: Anderia gorarik.

* HUHEZIk antolatutako Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoan jarritako sorta.

ERDIKO KAIERA

ALAN LOMAX

Euskaldunak kantari grabatu zituen ikertzailea

100 urte dira aurten Alan Lomax (Texas, AEB, 1915) jaio zenetik. Folk musika biltzen jardun zuen bizi guztian, eta milaka grabazioaren artean, Euskal Herrian egindakoak ageri dira haren artxiboetan.

| MIEL A. ELUSTONDO |

BI DISKO DIRA, bilduma handi baten aleak: *The Basque Country: Biscay and Guipuzcoa*, eta *The Basque Country: Navarre*. Biak ere Espainian grabatutako musika bildumaren barruan ageri dira, eta Alan Lomax dute egile, munduko folka biltzen bizia eman zuen ikertzailea. AEBetan jaioa, bertako musika tradizionala ez ezik han-hemengoa ere batu zuen Europan, joan den mendeko 50eko hamarkadaren hasieran, dela Italiakoa, Erresuma Batukoa edo Espainiako Estatukoa. Ez zuen lan nekea izan. Idatzirik utzi zuenez, “alderrai ibili nintzen hilabeteetan eta inoiz ez zitzaidan zail gertatu herrietako kantari eta musikari onenak aurkitzea, denek ezagutzen baitzituzten”. Ordurako, dena den, gisako lanetan bide ikaragarria egina zuen Lomaxek, XX. mendeko folk musika biltzailerik handienetakoak.

Kolorerik gabe, zailago da Lomax definitzen, diren eta ez diren arloetan barna ibili baitzen. Folklorista, etnomusikologo, artxibogile, idazle, irakasle, politika ekintzaile, ahozko historiagile eta zinemagile izan zen. Grabazioak, kontzertuak eta irratsaioak gauzatu zituen hala AEBetan nola Erresuma Batuan, 40ko, 50eko eta 60ko hamarkadetan, folk mugimenduari alimaleko bultzada emanaz. AEBetako presidente Franklin Delano Rooseveltek 1932an abiarazitako New Deal garaian berriz, Alan Lomaxek milaka kantu grabatu zituen aluminio eta azetatozko diskoetan Kongresuaren Liburutegiko Amerikako Folk Kantuaren artxibategirako. Lehenik, aitari laguntzen lan egin zuen, hau da, John A. Lomax folklorista eta bildumagilearekin. Hamazazpi urte zituela lagundu zion lehenbizikoz folk kantuak biltzen: *American Ballads and Folk Songs* (1934) eta *Negro Folk Songs as Sung by Lead Belly* (1936) lanetan, hain segur. Harrezkero, beste zenbait lankide eta kolaboratzailerekin jardungo zuen Alan Lomax gaz-



teak: Floridan eta Bahametan izan zen 1935ean eta, 1937an aldiz, Texaseko Unibertsitateko Elizabeth Harold Goodman ikaslearekin ezkondu eta Haitin, Alabaman, Apalatxeetan eta Mississippin egin zituzten folk musika grabazioak.

1937tik 1942ra bitartean, Kongresuaren Liburutegiaren Folk musika Artxibategiko laguntzaile arduraduna izan zen, eta erakundearen asmoari jarraiki, landa-lana bultzatzeko eginahalak egin zituen. Ahozko historiaren aitzindarietakotzat jo izan da Lomax, eta folk eta jazz musikari anitz entrebistatu zituen. Bera izan zen kalean pasaeran oinezko arruntak elkarrizketatzen hasi zen lehena. 1941ean, lanpostua baliatuz, telegramak igorri zizkien AEBetako hamar estatutan barrena ari ziren landa-langileei, iritziak bil zitzaten Pearl Harbor-eko bonbardaketaren eta ondoko gerra deklarazioaren gainean. Hurrena, berri, 1942an, *Dear Mr. President* izeneko elkarriz-

ketak batu zituen, jendeari iritzia galde. Hitz bitan, 1939tik 1942ra Alan Lomaxek sasoi betean jardun zuen musika bilketan, eta Bigarren Mundu Gerra garaian ere, armadan zelarrik, musika eta gerra lotzen zituzten hamaika irratsaio burutu zituen. Sona eta aipu handiko, adibidez, *The Martins and the Coys*, Ingalaterran BBCK emititu zuena. Woody Guthrie, Burl Ives, Pete Seeger eta beste hainbaten musika haizatu zituen BBCren saioak, nahiz eta AEBetan ez zen inoiz emititu.

1942an, Kongresuaren Liburutegiari diru-laguntzak kendu zizkioten garaian, Lomaxek bere gisa segitu zion bideari, eta Ingalaterran, Irlandan, Kariben, Italian eta Espainian ere ibili zen bilketan. Ordurako, grabatzeko teknologiarik berrienaren jabe zen Alan Lomax, eta ikaragarritzko bilduma osatu zuen, hala AEBetan nola handik kanpo.

Sorgin ehizatik ihesi

1949an sorgin ehiza AEBetan. Komunismoa zen aitzakia. Hurrengo urtean, giroa gori, FBIko agente izandakoen *Red Channels* panfletoak artista eta kazetarien zerrenda gorri-



1952ko azaroaren 19an hartu zuen argazki hau Alan Lomaxek Zeanurin. Irudian, Arantza Goikoetxea panderoarekin. Bera da AEBetako ikertzailearen grabazioetan entzuten den euskaldunetako bat.

Woody Guthrie eta Pete Seeger bezalakoen musika haizatu zuen irratian; AEBetako sorgin ehizak jazarri zuen 1950eko urteetan

beltza zabaldu zuen, non komunismoari sinpatia omen ziotenen izen-deiturak lau haizetara zabaldu baitziren. Bertan ageri ziren izenen artean, Leonard Bernstein, Burl Ives, Dorothy Parker, Pete Seeger, Josh White... eta, bistan da, Alan Lomax.

Uda hartan, McCarran legea eztabaidatzeari lotu zitzaion Washingtongo Kongresua. Horren arabera, subertsibo guztiak erregistratuko ziren –fitxatu, argotean– eta hatz-markak bilduko zitzaizkien, bidaiatzeko mugatuko zitzaizkien, eta “larrialdi” kasuetan atxilotu egingo ziren. Lomax segur zen legea onartuko zutela eta, hala izatera, bere karrerak hondoa joko zuela, ez zuela aurrera egiterik izango. Ordurako dibortziaturik eta Columbia Records etxearekin Europan grabazioak burutze-ko kontratua adosturik zuela, herrialdetik irtetea planeatu zuen.

Pasaportea korrika eta presaka berri, hitzartutako konpromisoak bertan behera utzi eta 1950eko irailaren 24an

partitu zen Mauretania itsasontzian. Beharrik! Urrian FBIko agenteak Lomaxen lagun eta adiskideen artean galdezka ziren. Hala ere, ez zien jakinarazi alde egitera beharturik ikusi zuela bere burua. Eta, geroago ere, Ingalaterrako egunkari batek Alan Lomax “sorgin ehizaren biktima”-tzat hartu zue-
nean, honek ez zuen esan Erresuma Batuan Columbia proiektuko lanean ari zela besterik. Erresuma Batutik Europako lau korneerretara zabaldu zuen bere lana...

Europa, soinu iturri agortezina

Ingalaterran, Londresen dugu 50eko hamarkadan, eta bertatik osatu zuen *Columbia World Library of Folk and Primitive Music* lantzarra, hemezortzi alez osatutako bilduma mardula. Espainiara, Eskoziara, Irlandara eta Italiara joateko baliatu zuen egokiera, badakigu zazpi hilabete eman zituela Espainian, esate baterako. Hirurehun item inguru grabatu zituen penintsulan barrena, hainbat eta hainbat ohar idatzi, eta ehunka argazki egin. Espainian grabatutako lanen artean Sevillan jasotako saeta edo Vigoko gaiteroen alborada goraipatu zituzten zen-

Song of the basques eta Ximun Haran

BISTAN DENEZ, Alan Lomaxen bilketa baino lehen ere izan ziren atzerrian euskal kantuak grabatu zituztenak. 1938an, esaterako, *Song of the Basque Children* grabatu zuten Ingalaterran. Haurrak ziren interprete, 1937ko maiatzaren 22ko gauean SS Habana itsasontzian Santurtzikoko portutik irten eta Southamptonera abiatu ziren haie-takoak. Hamar urtetsu geroago, 1949an, *Song of the Basques* grabatu zuten Boise, Idaho (AEB). Musika astea egin zen Idahoko hiriburuan, eta euskaldunak gonbidatu zituzten. Batu ziren bizkaitar artzainak, diskutitu zuten zer kantatu, zelan, eta parte hartu zuten.

Diotenez, negar egin zuen jendeak, Euskal Herri zaharreko kantuak entzun zituenean.

Garaitsuan, baina etxean bertan, kantuak biltzeari lotu zitzaion ospe handiko pilotari Ximun Haran. “Gu pilotariak ginen, eta txoko guztietan gure jokoa erakutsi ondoren, gauean herriko tabernan afaltzeko egiten ziguten gonbita gustura onartzen genuen. Azken-burukoa ekarri bezain laster kanturako gogoia nagusitzen zen, eta kantaldi haiek berandu arte luzatzen ziren. Queheille Altzürükükoak *Belatsa* kantatu zuen gau batean, letrarik gabeko kanta benetan ederra, gabirai baten hegaldia imitatzen duena. Quehei-

leri entzuten genion bitartean, Mixel Epherrek ahopeka esan zidan: ‘Bera da hori kantatzen dakien bakarra; berarekin batera desagertuko da kanta ere’. Entzundakoak kezkatu egin ninduen, eta, horrela, Frankfurtera joatea erabaki nuen Grundig bat erostera”. Haste-ko, Barkoxen, Senperen eta Amotzen, Larrainen eta Santa Grazin burutu zituen grabazioak, eta ondoren, berriz, Bermeon, Azkoitian eta Bilbon. Ehun zinta inguru grabatu zituzten, eta binilozko sei disko luze izan ziren emaitza, Euskal Museoa bildumaren barruan argitaratuak. 2003an, bestalde, *Xiberoko kantiak* berrargitaratu zuen Elkar etxeak.

bait artistak —Miles Davisek, kasurako—, hainbat herrialdeko musika eta kantak bildu zituzten arren: Mallorca, Ibiza eta Formentera, Galizia, Extremadura, Aragoi, Valentzia eta, gurean, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa ibili zituen Lomaxek Jeanette Bell laguntzarekin, eta lekuan lekuko laguntzaileak izan zituzten biek.

Euskal Herrian egindako grabazioetan, esaterako, Eduardo Torner dugu Lomaxen kolaboratzaileetan, eta Aragoi, Valentzia eta Galiziakoe-tan, adibidez, Julio Caro Baroja bera ere ageri da, besteak beste.

Hemengo grabazioekin osatutako bi diskoak hagitz freskoak dira, barre algar, txalo zarta eta irrintziekin

Euskal Herria ezinbesteko bi diskotan

1952tik 53ra ibili zen Euskal Herrian, eta bi disko dira emaitza *The Spanish recordings: Basque Country* seriean. Lehena Bizkaia eta Gipuzkoari eskainia da, eta 38 kantu bildu zituen bertan. Bigarrenak, *Basque Country: Navarrek*, 33.

Bizkaia eta Gipuzkoari dagokien diskoko interpreteetan bada izen ezagunik aski: Ignazio Eizmendi *Basarri* eta Manuel Olaizola *Uztapide* bertsolariak dirateke aipu eta sona handikoenak, eta horien ondoan dira Zarauzko eta Donostiako txistulari taldeak. Horiekin batera, beste zenbait izen dira Arantza eta Andoni Goikoetxearenak, eta Sotero Erauzkin, Simon Badiola, Pedro Anaito edota Javier Bello Portu bera. Zeanuri, Ergoien, Tolosa, Ondarroan eta bestetan egindako grabazioek osatzen dute ale hau.

Nafarroako diskoaz denaz bezainbatean, Uitz, Arizkun, Elizondo, Lesaka eta Iruñean

osatu zituen grabazioak eta Perez Lazarraga anaiak, Jose eta Maria Fagoaga, Mariano Izeta, Maurizio Elizalde, Migel Anjel Leoz eta beste zenbait dira interprete. Nabarmen-tzekoa da dultzainaren eta txistuaren presen-tzia, eta Leoz gaztearen jota kantak, nahiz euskaraz, nahiz gaztelaniaz kantatzen baititu.

Bi lanak ere hagitz freskoak dira, bertan aditzen diren barre algar, txalo zarta eta irrintziek erakusten dutenez. Disko biak 2004an argitaratu zituen Rounder etxeak, eta liburuxka bana dute, argazkiz eta jakingarriz ongi hornituak, Juan Mari Beltranen eta Aintzane Camararen lanaren ondorio. Bi lanok ere entzungai dira Alan Lomaxek bildutako guztiekin batera, hark abiarazitako Kultur Ekitatearen aldeko Elkarre ACEren culturalequity.org web-gunean. ■



Ekitaldi kulturalak,
festak eta antzeko ekitaldietan musika jartzailea...
tickelsound@yahoo.es / ☎ 629 005 578

Nola egin leku kabitzen ez dakienari

Uztailaren 17-19 bitarteko asteburuan hartuko dute leku Eako Poesia egunek hamabigarren urtez. Poesia ardatz, askotariko emanaldiekin ondu dute egitaraua, “poesia ezin da kabitu” lelopean.

| ITZIAR UGARTE IRIZAR |

“BATZUETAN poesia ez zait kabitzen buruan. Orduan autoa hartu eta kostaldeko errepi-dea hartzen dut, radarrei erreparatu gabe, bizitzea eta urruntzea gauza bera balira bezala”, Castillo Suarez-enak dira berbak, Eako Poesia Egunen antolatzaileei aurtengo goiburuak –“poesia ezin da kabitu”– iradokitzen zionaz galdetuta esandakoak.

“Poesia zer den eztabaidatzen hasita kon-turatu ginen poesiaren monopolioa ere ezin genuela Ean lortu, librea dela, eta sortzaileei hartaz hausnartzeko erronka luzatu genien”, azaldu du Asun Landa Herrieri Emon Arna-sa elkarteko kide eta antolatzaileak.

Poesia askotan “gutxietsita” dagoela uste du Landak, eta horregatik poesiari lehenta-suna eman eta Ean haren erakus-leiho txiki bat zabaltzen ahalegin-tzen direla. Poesiari “aparteko lekua” eskaini nahi dioten arren, egitaraua hibridoa dela dio; bes-teak beste, antzerkia, musika, hitzaldiak eta performanceak ere batzen baitituzte egitarauan.

Poesia protagonista nagusia bihurtzearekin batera, Eako herriak berak ere egiten ditu bere-zi egunok. Eskaintza kulturala naturarekin uztartzen dutela dio Landak, kostako herri txikiaren parajeak baliatuta eszenatokietarako; moila, itsasertza eta ondoko auzoak kasu.

Aresti gogoan

Bere gaixoaldiaren azken urteetan Ean izan zen Gabriel Aresti, 1975ean hil zen arte. Landak gaztea zela ezagutu zuen: “Frankis-moko azken urte haietan, modernitatea eta haize freskoa esan nahi zuen Arestik gure-tzat”. Bizkaiko herriaren inguruan “poema

ederrak” idatzi zituen, harekin zuten zorra kitatzeko omenaldi bat antolatu zuten 2004an. Hurrengo urteetan, poesia zaletasu-na eta ekimenarekin jarraitzeko gogoia antzemandakoa, hasieran Arestiren omenezko eguna zena, asteburu beteko poesia ekimen bihurtu da.

Urtero du horregatik Arestik tokia gorde-ta egitarauan. Aurten Miren Agur Meabek hartuko du kargu, *Nire arestiar lauburuak* hitzaldiarekin. Bilboko idazleak haren lane-tan izandako eraginaz mintzatuko da, ezagu-tzen joan ahala nola bat egin eta nola urrun-du diren bizitzan zehar.

Iaz Iratxe Retozalak eta Danele Sarriugar-tek Arestiren imaginarioa aztertu zuten generoaren ikuspuntutik; eta hain zuzen, lan hori zabalduko da aur-ten poesia egunetan argitaratzen den *Zaldiarri* eskuorrian. Edizio guztietako kartelak bezala, Erra-mun Landak egin ditu honen diseinuak.

Aurtengoa seigarren alea izango da, baina aurreko urteetako *Zaldia-rriak* ere eskuragai izango dira Ean; Iñigo Aranbarrik eta Anarik, Koldo Izagirrek, Harkaitz Canok,

Mikel Antzak eta Luzien Etchezaharretak idatzitakoak.

Bertso eta poesia

Poesia eta oro har literaturaren inguruko kezkei eragin eta eztabaida sustatzen ahale-gintzen direla dio Landak. Aurten azpigai gisa, bertsolaritza eta poesiaren arteko harremana hartu dute eta hartara, Maialen Lujanbiok bertarako espresuki gertatutako hitzaldia eskainiko du larunbatean. Ildo berean, *Kafkaren aulkia* ikuskizuna eskainiko

Gabriel Arestiren omenezko eguna zena asteburu beteko ekimen bihurtu da urteekin, literaturzaleentzat ezinbesteko zita da udan



Castillo Suarez eta Asun Landa aurtengo Eako Poesia Egunak aurkeztu zituztenean. Poesia askotan “gutxietsita” dagoela uste du Landak eta horregatik ematen diote lehentasuna Bizkaiko herriko ekitaldietan.

dute Itxaro Bordak, Uxue Alberdik, Andoni Egañak eta Pello Ramirezek. *Zure batzaren exgaltzeko* Bordaren azken poesia liburuko poemetan oinarrituta osatuko dute emanaldia.

Programazioko hirugarren hitzaldirako gonbidapena hirugarren emakume batek egin du; Alaitz Aizpuruk Joxe Azurmendi poetaren inguruan hitz egingo du ostiral iluntzean, *Joxe Azurmendi 60ko poesiaren eraberritzean* izenpean.

Aurtengo *in memoriam* gonbidatua Miguel Hernandez izango dela nabarmendu du Asun Landak. Josu Landak Munduko Poesia Kaieretan itzuli dituen haren zenbait poema kantatuko ditu ostiral gauean.

Uzta berria

Poesia egunen aldeko ezaugarrietako bat esperimentazioari eta proiektu berriei aukera ematen dietela da, Landaren aburuz. Horren erakusgarri, ITU Bandakoak aurrenekoz igoko dira eszenatoki gainera larunbatean, Bedaronako auzoan. Taldeko gazteen hitzetan, “belaunaldi bat hiru ekitalditan” islatuko dute Ean aurkeztuko duten *Ituskizuna* performancean.

Metrokoadroka sormen laborategiak ere *Su izan nahi: hildakoak, senideak eta maskotak* antzerki emanaldia estreinatuko du larunbat gauean. Eta antzerkiaren ostean, musika:

Anarik *Zure aurrekari penalak* disko berria aurkeztuko du Eskolapen talde osoarekin batera.

Landak azaldu duenez, urteekin egonkortu den emanaldietako bat, argitaratutako azken poesia liburuen lagin bat eramatea izan da. Jose Luis Otamendik izango du bere azken liburua aurkezteko parada; *Kapital publikoa (Atlantikoaren aurrean)* errezitaldia eskainiko du larunbat eguerdian Portusolon.

Poesia gosez jarraitzen duenak, igande eguerdian izango du zita moilan. Azken poesia uztarekin jarraituz, Antonio Casado da Rocha, Tere Irastortza, Joan Mari Irigoien eta Mikel Antzaren poemak errezitatuko dituzte. Musika Beñat Barandiaranek jarriko du.

Natxixuko herri-bazkariaren ostean, erroak Eako poesia egunetan dituen *Erractus* ikuskizunak emango dio amaiera aurtengoari. Jule Goikoetxeak, Danele Sarriugartek eta Kattalin Minerrek aurtan eskainiko duten azken emanaldia izango da gainera.

Poesiari aski toki egiteko ahalegina nabaria izan arren, ezin leku nahiko egin herri eta asteburu batean. Josu Landaren hitzetan, “ez zaizkio aski amodioa, abegia, adeia, profesionaltasuna, zaletasuna... espiritu librea da poesia berez, ez du gogoko inon kabiarez dezaten”. ■

Literatura

*Hemen naiz,
ez gelditzeko baina*
Markel Ormazabal
Txalaparta, 2014



Behin bestaldean zer?

MITXEL SARASKETAREN gogoeta bortitz batekin abiatzen da Markel Ormazabalen kartzelako kronika: “Preso egon denaren gogoia gartzelara itzultzen da beti (...) batzuetan faltan botatzen dut kartzela” (9. orrialdean). Inoiz *Preso* izan ez gare-nok —eta maiuskulaz darabilt preso hitza, zoritxarrez, kolektibo baten memoriaren adierazle dela-ko— urrunetik ere ezin uler dezakegun erreflexioa da Sarasketarena.

Lisabö taldearen kantu batean oinarritzen den tituluak, *Hemen naiz, ez gelditzeko baina*, martxan jartzen du liburuan hezurmamituz joango den problematika nagusietariko bat. Kartzela izeneko mundu horretan, idazle preso ohiak gizarteko angelu itsua deitzen duen horretan, hizkuntzaz, izenaz eta izanaz erauzia da gizakia *ez gelditzeko baina*. Bestela esanda, kartzela barruan bizi arazi eta iraunarazteko nor izatetik zer izatera egin beharreko ezinbesteko ariketa burutu ondoren, alderantzizko prozesuari ekiteko zailtasunari aurre egin behar dio preso ohiak: “Eta, oraindik ere kartografia horrek bizi nau. Bihotz barruan betirako kondenatua?” (11. orrialdean).

Atal laburrek bizipen eta esperientzia pertsonal baten usaina darie “Ta estali dut ahoa, ta orain

taupadak dira” (12. orrialdean), baina kolektibo baten memorian eraikitako diskurtsoa da nagusi; ziegak, pasabideak, hormak, leihoak eta orotariko erreferentzia espazialen bitartez, subjektu kartzelatu baten erabateko anulazio prozesuaren lekuko bilakatzen gaitu, “t-a eta n-a kenduz, eta r-a eta e-a kenduz aldatze hutsarekin beste izaki bat” (60. orrialdean), *pertsonatik preso* arako prozesuarena hain zuzen ere.

Hemen naiz, ez gelditzeko baina collage baten itxura hartzen badu ere, hiru galderatan formulatu daitezkeen hiru atal nagusi antzeman ditut: 1) Nola egin izanaz eta izenaz erauzia izan ostean berriz subjektu izatera igarotzeko? 2) Nola egin hizkuntzak mundua esplikatzeke jada balio ez digunean? 3) Nola egin subjektu kartzelatutik kartzela subjektura igarotzeko?

Galdera irekiak, baina erantzunik gabekoak. Biltzen diren erreferentzia musikalak, agian, lagungarri suerta daitezke taupada bakoitzari melodia eransteke momentuan. Ezin da ulertu, partekatu baizik. ■

Saioa Ruiz



Liburu azoka

Ondarroan, uztailaren 24tik abuztuaren 2ra Alamedan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi
irakurriz!*



Tximeletak
Lain
Baga Biga, 2015

Doinu hegalariai

ROCK ERRITMO INDARTSUAK, doinu mardula eta trinkoa, eta melodia politak eta hunkigarriak entzun daitezke Lain taldearen hirugarren diskoan. Hitzetan, besteak beste, harremanak, istorio pertsonalak, gogoetak, sentimenduak eta sentipenak dituzte hizpide.

Diskoa prestatzen lan handia egin dutela antzematen da kantuek entzunez gero. Grabazio saioak Gaztain estudioetan egin dituzte, Eñaut Gaztañagarekin; Natalia Garmendia (ahotsa), Jon Arruabarrena (saxofoia), Felipe Murillo (biolina), Nerea Lasaga (biolontxelo) eta Xabier B. Leturia (perkusioa) musikariak ere aritu dira; eta diseinu lanez Josu Torrealday arduratu da. Denen artean, oso lan ona burutu dute.

Lain taldeko kideak oso gazte hasi ziren musikaren munduan. Nerabeak besterik ez zirela hegan egiten hasi ziren. *Zure doinua* abestiaren bideoa Youtubera igo eta berehala arrakasta lortu zuten –bat batean 20.000 bisita izan zituen bideoak–, Gaztea Maketa Lehiaketa irabazi zuten *Aukera berri bat* abestiarekin 2008an, eta jendaurreko emanaldi ugari egiten hasi ziren. Toki txiki zein handietan: BBK Live jaialdian, Donostiako Aste Nagusian, hainbat herritako jaietan, Bonbereanean, zenbait gaztetxetan...

Taldea urte hartan sortu zen Villabonan (Gipuzkoa). Leire Berasaluze (ahotsa), Kristina Aranzabe (ahotsa), Jon Altuna (bateria), Imanol Urkola (gitarra) eta Javi Rivero (baxua) izan ziren kideak 2011ra arte, eta denbora tarte horretan bi disko kaleratu zituzten, biak Elkar argitaletxearekin: *Lain* (2009) eta *Leiboak* (2011). 2011urtean Mikel Benito (gitarra) taldera batu zen, *Leiboak* diskoa kaleratzearekin batera. 2013an Imanol



Urkolak taldea utzi eta Joseba De Arriba (gitarra) hasi zen, eta hirugarren lana prestatzeari ekin zioten buru belarri.



Oraindik gazteak dira baina ibilbide bat egina eta eskarmentua daukate. Leire Berasaluze eta Kristina Aranzabe abeslarien ahotsak izan dira beti taldearen bereizgarri nabarmenenak. Hasieratik jo dituzte pop-rock kutsuko doinuak, baina bilakaera izan dute, disko berriko kantuek ez dira hain sinpleak, errazak eta gozoak aurreko diskoetako kantuekin alderatuz, indartsuagoak, landuagoak eta *belduagoak* dira. Doinuak bezala, hitzak ere aurreko diskoetakoak baino landuagoak daude.

Taldea sendotu egin da, bere doinua indartu, biribildu eta findu egin du, eta hasierako ilusioarekin hegan egiten jarraitzen du kantuen bidez. ■

Joxi Ubeda

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Peter Finkek esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


	2			5				7
				9	2			1
5			4	3		2		6
2	4	7				9	6	
		1				5		
	8	5			9	4		2
4	2		6	8				9
	6		1	2				
1			7					2

Zaila

	5	1	6		9	3		
			1	2			4	
		7				6		
	4							6
	9		5		2		8	
5							3	
		9				8		
	2			6	5			
		5	7		1	2	9	

5x5


Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



- 1.- Zereginak.
- 2.- Kalkulatzeko taula.
- 3.- Arre, gris.
- 4.- Bukatu da!
- 5.- Buruko apaingarri.

Erronboak

Erantzunek zenbaki bakoitza inguratzen dute, gezia ateratzen den laukitik hasita eta haren noranzkoa jarraituz.



1. Iruzurra.
2. Ilargi.
3. Hedatsuago.
4. Labe.
5. Gazte multzoa.
6. Eragotzi.
7. Begia babesteko azala.
8. Asebete.

Soluzioak

Puzzlea: "Nik artza gaitetako lau partetatik at ulertzen dut, jendeari eskaintzeko, emateko, laguntzeko zerbaitezala; eta hort da Osinbeltzeko proiektua."

5x5: 1. Lanak. 2. Abako. 3. Nabar. 4. Akabo. 5. Koroa.

Erronboak: 1. Engainua. 2. Argizagi. 3. Zabalago. 4. Labete. 5. Gazteria. 6. Galarrak. 7. Betazala. 8. Gogobete.

Udan kanpora bazoaz, zer eraman botikinean?

NAZIOARTEKO BIDAIEN maiztasuna gero eta handiagoa da. Krisi ekonomikoa gori-gorian egon arren, %5-7 gehitu dira iaiztik hona. Eta bidaien epidemiologia ere aldatu da oro har: behinola nagusi izandako gaixotasun parasitarioek behera egin dute, eta gaitz birikoek, aldiz, gora. Baina kontua ez da beldurra zabaltzea, informazioa ematea baizik, hura baita osasun erremintarik onena.

Kontuan hartu beharreko aurreneko gauza da ea bidaiariak gaixotasun kronikorik ba ote duen. Hala balitz, tratamendua egiteko behar adina hornidura eraman beharko du, izan ere agian doan lekuan botika horiek ez baitira hain erraz eskuratzeko modukoak izango. Eta botikinean txosten medikoak eta errezetak eramatea ere komeni da. Botikak jatorrizko ontzian eraman behar dira, narkotikotzat edo leku horretan debekatutako botikatatzat har ez daitezten. Bidaia luze samarra baldin bada, botikak aldean eramatea gomendatuko nizuke, ez maleta barruan edo botikinean txukun-txukun gordeta, gerta daitezkeen eraguztietako ustekabeak saihesteko.

Aldez aurreko prebentzioa

Behin gure bidaiaren norakoa erabaki ondoren, komeni da medikuarengana joatea, zer nolako prebentzio neurriak hartu behar diren jakiteko, eta bidaiaren zehar zer jan edanek kalte egin diezaguketen argi edukitzeko. Gaur egun txerto ugari daude, nazioarteko bidaiari ekin aurretik jarriz gero, gerta daitezkeen kalteak aurrez eta erroitik moz ditzan.

ketenak. Horregatik, txertaketa-egutegiak bidaiariaren adina eta bidaia-aren norakoa kontuan hartuta eguneratua egon beharko luke.

Hurrengo aholkua ez da botika bat, zentzu hertsian, baina aditu guztiek osasun-estaldura emango digun bidaia-aseguru bat kontratatzea gomendatzen dute, goazen urruneko leku horretan asistentzia sanitarioaren premian gertatuz gero erabili ahal izateko.

Botikinean, bestalde, eltxoak eta beste-



botika ere: eguzki-babesak, analgesikoak eta antiinflamatorioak –sukarra, buruko mina edo min muskularrak agertuko balira–, lehen sendaketak egiteko aposituak, azaleko baben kontrako partxeak, tiritak, eguzki-erreduren kontrako kremak, antihistaminikoak –inoiz alergiaz arazoren bat eduki baldin baduzu–, eta kortisona duen kremaren bat, larruazaleko ziztada edo erreazio alergiko arinak tratatzeko. Ahotik errehidratatzeko gatzak eta bidaiariaren beherakoa-

ren kontrako antibiotikoren bat gehitzea ere ez legoke gaizki, goazen leku horretan elikadura kontuak zorrotz bete ahal izango ditugulako segurtasun osoa ez badaukagu behintzat.

Eta bidaiatik itzulitakoan...

Bidaia exotikoren batetik bueltan sukarra agertuko balitz, ez da zalantzarik ere egin behar: larrialdi medikotzat hartu behar da. Larrialdietako zerbitzu batera jo behar da, aurreneko hamabi orduetan ahal izanez gero, eta bertan artatuko gaituen medikuari adierazi zona tropikal edo endemiko batetik gatozela, malaria arriskua saihesteko batez ere.

Etxera itzulitakoan ez bada sukarririk agertzen, ez dago zertan osasun azterketa berezirik egin. Hala ere, denboraldi bat normal pasatu ondoren gaixotzea, kanpoan egindako egonaldia luzea izatea edota bertan arrisku jarduerak egin izana lirateke osasun azterketa egiteko arrazoi bakarrak. ■

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Harra har

BARATZEAN lagun kuadrilla ikargarria dugu. Zorri eta kotxinila jenez egiten duen garbiketa asarrea dela eta, amona mantangorria hizpide izan dugu azkenaldi honetan. Ez da bakarria, orde, ezta bakana ere. Antzeko lana egiten duen lagun mordoa dugu.

Ipurtargiaren kumearen dieta baratzezainaren gustukoa da: bareen eta barraskiloen kumeak jenez hazten da. Kume kumejaleak. Ipurtargitxoak listu berezia sortzen du; harekin baretxoak eta barraskilotxoak sorgortzen eta desegiten ditu. Ondoren, koitadutxoak lasai asko xurgatuko ditu, xurrupe. Karboak ere jaten ditu bare eta barraskilo ttikiak. Berehala ezagutuko duzu intsektu hori: gainaldea distiratsua, metalezkoa balitz bezalakoa du. Handia da, eta proportzioan jan behar, ttiki horiez gain har, beldar, krisalida, pupa, ninfa... asko behar.

Zimitza da beste intsektujale asezin bat: har, zorri, akaro... Josu Larrañagak bere *Natura eta Euskara, paisaiaren bi alderdi* blogean izen pila jaso zuen, eta zimitza izenaren etimologiaz dio J.A. Mogeleg, 1802. urte inguruan idatzitako *Peru Abar-ka* eleberri txukunean, etimologia



HANS HILLEWAERT-CC BY SA

Ipurtargiaren kumea, barraskilotxoak jaten.

bitxi hau eman zuela: “Tximitxa edo imitxia esaten da tximurtxi, edo imurtxi egiten dabelako”.

Satitsuak ere asko behar du bizi-moduari eusteko. Bere pisua adina jaten nahikoa lan badu: intsektu, barraskilo, bare... Askok dagoen tokietan bizi behar, bestela jai.

Trikua ere bereziki zaindu beharko genuke baratze inguruan. Bere gautxori ibilaldietan batez ere barraskilotxo, bare, ipurtsarde, har eta intsektuen buxkan arituko da, usaimen aparta baliatuz.

Satitsuak triku eta zimitzak ipurtargi, baratze laguntzaile onenak

hegaztiak dira: irriu, pirripio, txinbo, urretxindor, zata, argo-oilar, amilotx, saguzar, zozo, birigarro, artzandobi, txantxangorri, mika, eskinoso... Azken horien familia batek, adibidez, udaberri-uda sasoi batean, bestela intsektu bihurtuko liratekeen milioi erdi bat har jaten du. Harra habietako mokoetara.

Armiamak ere lagun dira. Sarea egiten dutenak, eta egiten ez dutenak ere. Sarean, hegan doan eltxo, zorri... Denetik biltzen da. Saregabeak zortzian kan korrika segitu eta gainera salto eginda harapatuko ditu intsektuak. ■

Zuritzen

LEHENGO ASTEAN egindakoa da argazkia. *Platanus x hispanica*, platanoa da; zurinak jotako platanoa. Oidioa ere deitzen zaio zurinari. Udaberriko gaitza da batez ere. Gaitza indarrean ikusteak oraindik udaberri giroa dugula adierazten du. Onddo batek sortzen du; hezetan apur bat behar du, baina batez ere beroa eta lehorra eta euria elkarri txanda kenduz ari direnean hedatzen da. Hosto gainean, axalean zabaltzen den lizun zuria da. Non edo han hau ikusiz gero, baratzerako alarma jotzen ari zaizu: han kuiak, kuiatxoak eta luzokerrak zaindu, zurin-berak dira. Sufrearekin, propolioarekin, esnekiekin edota bikarbonatoarekin tratatu. ■



JAKOBA ERREKONDO



Bizi Baratzea liburuko trikimailuetan azaltzen den katu siestalariak liburutik kanpo ere bizitza hartu du: Goiko irudian duzue Zaldiero-k *Aizu!* hilabetekarian egin dion erretratua eta behean Antton Olariagak *Berriako* Zakilixut tiran eginikoa.



Eskaerak

Salneurria: 23 €
Harpidedunentzat: 19,50 €

☎ 943 371545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.



@bizibaratzea · Informazio gehiago: www.argia.eus/bizi-baratzea

AURKEZPEN HITZALDIAK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.

Hauek dira ondorengo hitzorduak:

Uztailak 19
Subilla Gasteiz

Frackanpadako azken eguneko azoka ekologikoan, eguerdian (ordu zehatza zehazteke).

Irailak 18
Ozaeta

Ordua eta lekua zehazteke.

Irailak 22
Alegia

Ordua eta lekua zehazteke.

Irailak 23
Algorta

Egizu! elkarteak antolatutako Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoaren barruan. 19:30ean, lekua erabakitzeke (eguraldiaren arabera)

Irailak 24
Urduña.

19:00etan, lekua zehazteke.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu.

sustapena@argia.com
☎ 943 371 545

Francok petrolio sintetikoa irentsi zuenekoa

BARTZELONA, 1940KO OTSAILAREN 8A. *La Vanguardia* egunkariaren azalean titular hau irakur zitekeen: “Autarkia nazionala erregaian”. Eta azpian: “Zortzi hilabete barru Espainiak egunean hiru milioi litro petrolio ekoiztuko ditu”. Gerraoste hasi berrian, urritasuna nabarmena zen arlo guztietan, baita erregaian ere. Eta badirudi *caudillo* bereziki sinesbera zela egoera larri horretan. Etsi-etsian, besteak beste, uraren bidez funtzionatzen zuten motorrak etorkizuna erraztuko zuela sinestarazi zioten, eta izurde haztegiek gosea arinduko zutela. 1939an, Francok estatua pobreziatik aterako zuten urte eta petrolio hobiak aurkitu zituztela ere iragarri zuen hainbat hitzalditan. Baina 1940. urtea iritsi zen, eta mirarizko konponbide horien arrastorik ez zegoen. Orduan, Albert Elder von Filek Austriara iritsi zen Madrilera, mundua aldatuko omen zuen formula sekretua besapean.

Elder Von Filekek estatuburuarekin biltzea lortu zuen, eta losintxaz eta miresmen hitzez limurtu zuen diktadorea. Ura landare-estraktuekin eta, nola ez, ezagutzera eman ezin zuen osagai sekretu batekin nahastuta, petrolio sintetikoa erraz eta merke ekoizteko gai zela esan zion. Erakustaldi moduko bat ere egin zion; Francok erabiltzen zuen autoa bera erregai horrekin funtzionatuarazi zuen, itxuraz —berez, Francoren gidaria konplize egin zuen—. Lehengai merkeak erabiliz, hilabete gutxian eguneko hiru milioi litro erregai ekoiztuko zituzten eta, hala, estatuak ez zuen petroliorik inportatu beharko. Handik aurrera, austriarraren formula harrigarriari esker Espainiak aukera garbia zuen munduko potentzia nagusietakoa izateko.

Jakina, petrolio multinazionalak atzetik omen zituen Elder Von Filekek, baina hark ez zuen dirurik eskatzen; Francoren erregimenaren hotsandia zen nahi zuen ordain bakarra. Eta, hala, erregaiaren sekretua musu truk emango zion.



LIFE

Francisco Franco Adolf Hitlerrekin Hendaian, 1940ko urrian. Urte horren hasieran Francok beste austriar batekin egin zuen topo, eta hark erregaia erraz ekoizteko metodoa oparituko ziola sinestarazi zion diktadoreari.

Gainera, Franco bolada oneko zegoen. Austriar asmatzaileak Jarama ibaiko ura sakon aztertu zuen; ezin hobe omen zen erregaia lortzeko. Beraz, petrolio berria ekoizteko instalazioentzat kokagune aproposa izan zitekeen hura. Eta jarduera abiarazteko inbertsio txiki bat beharko zen. Horrenbestez, ordain materialik eskatzen ez zuen asmatzaile eskuzabalari Jarama ertzeko hainbat lur eremu eta hamar milioi pezeta —garai hartan, dirutza— eman zizkion Espainiak Gobernuak.

Denborak aurrera egin eta erregai miragarriarik ezean, Elder Von Fileken iruzurra agerian geratu zen. Hura eta Francoren txoferra espetxeratu zituzten, eta handik aurrera ez zen haien berririk izan. Gaiari buruz aurrez argitaratutako guztia desagerrarazteko agindua eman zuen diktadoreak. Baina *La Vanguardia*ko hemerrotekan gertatutakoa xehe-xehe azalduta gorde da. ■

Arrastoak

Bikinia, bonba atomikoak adina eragin izango zuen bainujantzia



GETTY

1946KO UZTAILEAN bonba atomikoen probak egiten hasi ziren Bikini atoloian, Marshall Uharteetan. Urte berean, Louis Réard auto ingeniari eta moda diseinatzaile frantziarrak sabela agerian uzten zuen bi piezako bainujantzi ausarta diseinatu zuen emakumeentzat. Dirudienez, sortzaileak arazoak izan zituen modelo bat aurkitzeko, bikinia moralgabetzat jo

baitzuten. Horregatik Parisko Casinoko dantzari Micheline Bernardinirengana (argazkian) jo behar izan zuen eta hura izan zen Melitor Hoteleko igerilekuko desfilean bikinia soinean eramaten lehena. Bainujantziaren izena ere Bernardiniri berari egozten diote; dirudienez dantzariak “Bikiniko bonba baino lehergarriagoa” izango zela esan zion Réardi. ■

NIKOLAS BLAIN

«Iparraldearen alde edo kontra, ez dago erdibiderik»

Baiona, 1988. Makeako Herriko Etxeko hautetsia da. Batera plataformako bozeramailea. Hautetsien Kontseiluaren gehiengoak Ipar Euskal Herriko egitura bakarraren alde bozkatu du uztailaren 1ean. Hil honen 6an, berriz, Miarritze, Angelu, Bokale eta Bidarteko lau auzapezek Kontseiluaren erabakiaren aurkako agiria plazaratu dute: “Nola ote da posible manifestaldietan parte hartzea eta orain kontra agertzea?”, erran digu solaskideak.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco



HERRI ARTEKO LANKIDETZA ERAKUNDE PUBLIKO (HELP) bakarra antolatzearen kontra agertu dira Miarritzeko Veunac, Bidarteko Alzuri, Bokaleko Gonzalez eta Angeluko Olive auzapezak, egitura bakarra “gobernaezina” dela argudiatuz. Nikolas Blainekin solastatu ginenean, auzapezen agiria ez zen publikatua. Baterako bozeramailearekin mintzatu gara kari horretara

berriz ere: “Nola ote da posible, manifestaldietan parte hartzea Lurralde Kolektibitatearen alde, eta orain kontra agertzea? Bizi garen fasean bi jarrera hartzen ahal dira: Ipar Euskal Herriaren alde edo kontra, baina ez dago erdibiderik. Molde demokratikoan eta gehiengo zabalak adostutako bidea urratu behar da. Azken hilabeteetako eztabaidetan parte hartu dutenen jarre-

ra hori onartezina da”. Horiexek, lau auzapezen agiriari buruzko Blainen hitzak. Horien aitzinetik ukan genuen elkarrizketa segidan.

Zertan ari da Batera plataforma? Irudi luke bere zeregina hoztu dela.

Irudi lezake, baina ez da horrela. Azken hamar hilabeteetan ez da publikoki agertu, baina barne laneetan ari gara gogotik: Garapen eta

Hautetsien kontseiluekin, Merkataritza Ganbararekin eta Herrien arteko Biltzarrekin. Laster aterako gara plazara.

Ipar Euskal Herriko egoera politikoa Bateraren ildoan alde al dago?

Bai. Eta ez bakarrik abertzaleek bozetan lortutako emaitzengatik, gainerako alderdietan jakobinoa ez den ildoan nagusitu delako baizik. Jakobinoak ez dira haien karguetan, ez nagusiki bederen. Haustura gisako bat eman da. Gaur egun, 110 auzapezek Bateraren aldarrikapenak babesten dituzte, eta hauteskunde hauteskunde kopurua goiti ari da

Departamenduaren aldarrikapena egitetik Lurralde Kolektibitatea egitera aldatu zen. Orain berriz, Herri Elkargoa eskatzen da. Herritarrek jabetzen al dira aldaketan arrazoiez?

Ene irudiko, bai. 2010eko kontsultan 35.000 pertsonen parte hartu zuten. “Lurralde Kolektibitatearen alde edo kontra al zara?”, galderari baikor erantzun zioten. Bihurgunea hor eman zen. Ondoren, foro publikoetan pedagogia landu dugu biziki. Anartean, 2013an, ekimena Baionako eta Mauleko karriketara eramane genuen milaka jende bilduz. Alabaina, Jean-Marc Ayrault lehen ministro ohiak “Frantzian ez da estatus bereziko instituziorik sortuko”, erran zuen. Frantziako Gobernuak ez dio Lurralde Kolektibitateari bide eman nahi izan, ezezko biribila etorri zen Paristik. Parisekin indar lehian segitzea edo egungo zuzenbide publikoaren bidez gure eskakizunei erantzuteko dauden aukerak baliatzea aztertu genuen.

Baterako kideok Herri Elkargo bakarra osatzea lehenetsi dugu Ipar Euskal Herria politikoki egituratzeko. Lurralde Kolektibitatearen xedea atxikiz betiere, egitura hori baita eskaera demokratikoa, jendearentzat ulergarria.

“Herri Elkargo bakarra ala hiruzpalau herri elkargo. Arriskua hortxe dago, barnealdea giblean geratzeko arriskua barne”

Aldian aldiko gobernuek euskaldunen eginbidea oztopatzen dute.

Baikor izan nahian ere, egungo testuinguruan, Lurralde Kolektibitatea ez dugu 25 urtetan lortuko. Jean Grenet auzapez jakobinoak erraten zuenez, “lehen alderdia Frantzian ez da eskuina edo ezkerra, jakobinoa baizik”. Beraz, ez da alderdi aferra. Parisko Asanblea Nazionalen jakobinoek osatzen dute gehiengoa. Euskal Herria hitza agertzen delarik bidea blokeatzen dute. Debatean ez dute parte hartzen, baina kontrako boza emateko agertzen dira Asanblean. Argi dago, ez dute Euskal Herria erakundetzerik nahi.

Herri Elkargoak Ipar Euskal Herriaren erakundetze modua ekar lezake?

Herri Elkargoa lehen urratsa da. Egitura horrek gabeziak ditu, noski. Kontzienteak gara alimaleko mugekin topo egingen dugula. Frantziako

zuzenbide publikoaren ildoko egitura instituzional hauek 20 urte baino ez dute. Orain ari dira egonkortzen nolabait. Alabaina, guk instituzio gisako hori haztatu eta baliatu behar dugu. 158 herri gara eta lurralde proiektu koherentea egituratzeko gauza garela frogatu behar dugu. Hasteko, barnealdea eta itsasaldea biltzeko eta orekatzeko. Euskarak eta euskal kulturak egitura baten beharra duela erakusteko.

Uztailaren 1eko Hautetsien Kontseiluko Biltzar Nagusiaren ondoren zein da ikaspena? Zein da zeregina?

Frantziako zuzenbideari atxikiak diren eginbideak atzeman behar ditugu hemengo egitura instituzionala eratzeko. Gobernuak mandatu hori eman dio Paueko prefetari. Ipar Euskal Herriarendako bitarteko instituzionalak zerrendatzeko agindu dio Prefetari. Prefetak lauzpabost proposamen egin ditu. Horiek NOTRE legearen ildoan garatzen ari den lurralde erreforman daude, Herri Elkargoaren antolaketa bidera dezaketena. Herri Elkargo bat osatzeko 5.000 biztanle behar izan dira orain arte. Uztailean bozkatu den testuaren arabera, 2017 urtetik aitzina 20.000 beharko dira. Hori da Iparraldearendako aldaketa nagusia. Izan ere, orain hamar Herri Elkargo daude: bi aglomerazio eta zortzi herri elkargo. Alta, hamar horietatik zazpi ez dute betetzen 20.000 biztanleren heina. Une honetan, elkargoen mapa aldatzeko lanean ari da prefeta. Gure xedea, hamar herri elkargo horien orde, Herri Elkargo bakarra osatzea da.



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu
pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com



Prefetak lagundu dezake horretan?

Prefetak Herri Elkargoaren bidea urratzea ontzat hartu du. Hartaz, egungo hamar elkargoak desagertuko lirateke. Ikusi beharko da datozen 5-10 urteetan nola antolatzen den sortuko litzatekeen egitura berria, egun tokian toki dauden egituretatik tanpez ez mozteko, herri elkargo horiek desagertzen joanen baitira. Herriko Etxeek osatu behar dute Herri Elkargoa, zuzenbide publikoaren arauarekin bat eginez.

Zein izan daitezke trabak edo gabeziak Herri Elkargoa osatzeko bidean?

Gabeziak edo akatsak gobernantza-aren inguruan agertzen dira bereziki. Hauek dira galderak: nor izanen dira hautetsiak? Nolakoak hautetsien eskumenak. Nola antolatuko da fiskalitatea? Egun ez gaude horien erantzunak zehaztasunez finkatzeko gisan. Hautetsi batzuek ordea, xehetasun eskas horien aitzinean, kontra bozkatzen dute eta proiektua blokeatzen. Jarrera oso arriskutsua da. Beren jokamoldea ez dugu argi ez lagungarria ikusten.

Blokeatzeko arriskua dago, beraz?

Bai. Prozesuaren une erabakigarri honetan ez bada Herri Elkargo bakarraren asmoa abiatzen, beste aterabide bat bilatuko dute. Hiru Elkargo antolatzea, adibidez. Prefetak hori esan du. Gure lurraldea horrela egituratzen bada, arriskua izugarria da. Itsasaldeko aglomerazioek gaina hartuko baitute, Bordelerekiko harreman zuzena haiek landuko dute. Eztabaida arras politizatu da. Lurraldearen antolaketa biztanleen kopuruaren arabera egiten bada, kostaldeko oraingo herri elkargoek sos gehiago bilduko dute barnealdekoek baino, eta barnealdeko herri elkargoak bigarren mailan geratuko dira.

Hiru herri elkargo sortuko balira, ez litzateke instituzio bateratua izanen.

Herri Elkargoa A plana da. Hori gauzatuko ez balitz B plana legoke: hiruzpalau herri elkargo. B plana gauzatuko balitz, aglomerazioko hiri handien arteko koordinaketa gisako bat antolatu lezakete. Gu horren kontra gaude, Sindikatu Misto baten egituraren estatusa hartu zezakeelako. 2010ean bazter-



“Jean-Jacques Lasserrek dudak dituela? Azken hilabeteetan ez da Hautetsien Kontseiluko buru zelarik mintzo ohi zen bezala agertzen”.

tua izan zen bide hori. Sindikatu Mistoak ez baitu eskumenik, ez du dirua kudeatzen, ez du fiskalitaterik. Egitura hori, ahulegia delako baztertua izan zen. Gure geroa geure esku hartzeko ez dauka funtsik. Baterakoek ez dugu hori egoki ikusten. Prefetak dienez, Herri Elkargo bakarra ala hiruzpalau herri elkargo. Arriskua hortxe dago, barnealdea –baserri mundua– giblean geratzeko arriskua barne.

Bi aglomerazioko (Angelu/Miarritze eta Donibane Lohizune/Hendaia) auzapezak ez ziren hautetsien azken Biltzar Nagusian izan. Ez da seinale ona.

Prefetak Herri Elkargo bakarra osatzeko aglomerazioen estatutua edota estatua baliatzea lehenesten du. Prefetak aglomerazioetako auzapezei beren estatutua eta egitura 158 herrien artean partekatzea proposatu die. Nik ulertzen dut proposamen ausart eta kaltegarria izatea gaur egun dituzten bitartekoak bestekin partekatzea. Horregatik irtenbide bat xerkatu behar da. Egituratze prozesuan ari diren adituek ez baitute baztertzen Hiri Gunea egitura antolatzea. Eta kasu, Baiona eta Donibane inguruko bi aglomerazioetako hautetsiek ez liokete aterabide horri uko eginen.

Departamenduko buru Jean-Jacques Lasserrek zabaldu den prozesuarekin dudak dituela dio. Alta, Hautetsien Kontseiluko burua izan da berriki arte.

Lasserrek ez du parte hartu uztailaren 1eko bozketan, baina han zegoen. Irudiz, Departamenduko buru izateak zailtasunak ekartzen ahal dizkio, alta, Hautetsien Kontseiluko lehendakaria izana da. Orain arteko gogoeta guztiak bere kargupean garatu ditugu. Lurralde Kolektibitatea proposatu genuenean hautetsien burua zen. Nik orain galdera hau pausatuko nioke: “Euskal Herriaren aldeko egitura bakarraren aldekoa al zara, bai edo ez?”. Dudak dituela? Azken hilabeteetan ez da Hautetsien Kontseiluko buru zelarik mintzo ohi zen bezala agertzen. Agian, orduan ez zen guztiz konbentzitu, prozesu politiko honetan interesez sartu zelako. Nolanahi ere, orain bere jarrera argitu behar du, baita, koherentea bada, lehen zeukan iritzi beraren alde agertu ere. Gaur egun jokoan dena alderdiaz haratago dago, norberaren karrera politikoaz haratago. Lasserrek gisa horretara gogoetatu behar luke. Irudiz, blokeatuta dago. Alta, zirt edo zart egin behar du. ■

«Alderdiok Jaurlaritzari esan dioguna argia da: gelditu frackinga»

EAEEn haustura hidraulikoa eragozten duen legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrek ekainaren 30ean. Parlamentuko alderdiak iazko irailean Fracking Ez plataformak 103.000 sinaduraren babesarekin aurkeztutako Herri Ekimen Legegiletik abiatu dira legea ontzeko, baina jatorrizko debeku esplizitua ez da ageri onartutako testuan, bai ordea frackingari traba asko jartzen dion neurri sorta. Javi Carro legebiltzarkide arabarra izan da EAJren ordezkaria legea landu duen ponentzian. Jeltzaleak abstenitu egin ziren bozketan.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Alex Larretxi

Adierazi duzue ados zaudetela frackingari buruzko legean jasotako babes neurriekin, baina hala ere abstenitu zineten.

Uste baikenuen aukera historikoa galdu dugula legea are hobeto osatzeko, onartu diren hiru neurri murriztaileei guk proposatutako bost eta zortzi urte bitarteko moratoria ezarri. Abiapuntua zen estatuan izandako aurrekariak (Nafarroa, Kantabria, Errioxa...) erabateko debekuzkoak direla, eta Madril, Konstituzio Auzitegiaren bitartez, denak baliogabetu dituela. Fracking Ez plataformak zekarren proposamena ere halakoa zen, eta beraz baguen pertzepzioa hori ez zela egokiena. Ondo aztertu behar genuen frackingaren aurrean zer neurri har zitekeen. Eta uste genuen babesa handiagoa izango zela onartutakoari gure moratoria erantsiz, juridikoki segurtasun-eza handitu arren.

Zer ekarriko zukeen moratoriak?

Lehenik eta behin, Jaurlaritza behartzea. Gero ikusiko zen —eta ikusiko da, onartu denarekin ere— estatua etorriko ote zen esatera lege honek EAEko eskumenen esparrua gainditzen zuela. Hori ez gertatzeko, moratoria proposamena beste

neurri batekin osatzen zen: estatuak ere parte hartuko lukeen batzorde zientifiko bat eratzea.

Zergatik ekar zezakeen segurtasun-ez juridikoa moratoriak?

Lur azpian dagoen guztia estatuarena da. Hari dagokio, eta ez beste inori, horri buruzko legedia egitea [horregatik baliogabetu dira hainbat erkidegok emandako lege debekatzailak]. Estatuak debekutzat har zezakeen moratoria, eta horretan oinarrituta gure legea baliogabetu; hain zuzen hori saihesteko esan dugu moratoria epe jakin baterako izan behar zela, eta estatuarekin lankidetzan.

“Ezin da aterik itxi. Frackingak orain ez dauka batere itxura onik, baina ikus dezagun nola eboluzionatuko duen teknikak”

Leporatu egin zaizue moratoria proposamena denbora irabazteko saia-kera besterik ez zela.

Bai, eta hauteskunde garaia zetorrela-ko eztabaida moteldu eta legearen

onarpena ahal beste atzeratu nahi izan dugula. Gure asmoa zorrotz jokatzeko besterik ez da izan. Denbora irabaztea? Bada, bai. Kontua hartu behar da abiapuntua zein den: EAEk sekulako dependentzia energetikoa du, %93 ingurukoa, eta ia baliabiderik ez. Ezin da aterik itxi. Frackingak orain ez dauka batere itxura onik, baina ikus dezagun nola eboluzionatuko duen teknikak. Eta zentzu horretan, hobe da energia-baliabideen kontrola esku publikoetan egotea enpresa pribatuenetan baino. Leporatu egin zaigu, baita ere, EAJk alderdi modura moratoria baten beharra argi ikusten bazuen nahikoa zela Jaurlaritzak frackinga ez sustatzeko. Baina hala jokatu bagenu beti, hemen ez legoke legerik ezertarako, eta denok gidatuko genuke gida-baimenik gabe, esaterako. Zertarako onartu dugu Etxebizitza Legea, gobernuak bere kasa har badi-tzake neurriak? Jaurlaritza lege behartu behar da, babesa ondo bermatzeko.

Debekurik ezin ezarrita, kontua da onartutako legeak eragotzi egiten duela frackinga. Plataforma ere pozik agertu da.

Guk ere onartu dugu legea aurrerapausoa dela, gizartea babestuago

dago orain; horregatik abstenitu gara. Nik uste dut legea zer den haren izenak definitzen duela ezin hobeto: hidrokarburo ez-konbentzionalak erauzteko prozesuan eta frackingean ingurumena babesteko neurri osagarrien legea. Jatorrizko Herri Ekimen Legegileak zekarren izenburu bera da, eta Fracking Ez plataformak horretan bete-betean asmatu zuelakoan nago. Beste kontu bat da jatorrizko artikuluekin legeak oso bide laburra egingo zukeela, beste erkidegoetan ikusi denez. Aldiz, lege hau EAEn ere badauzkagun eskuduntzen eremuaren barrukoa da. Ikusi beharko da, hala ere, estatuak nola erreakzionatuko duen.

Demagun zuen proposamena onartua izan dela, eta bost edo zortzi urteko moratoria agortuta gaia azertu duen zientzialari batzordeak –ikusi beharko litzateke nortzuk osatuko luketen– dioela hidrokarburo ez-konbentzionalak erauzteko teknikak badi-rela seguruak. Baina legeak traba egiten dio horiek erabiltzeari.

Onartu diren hiru neurriak oso orokorrak dira. “Kutsatu ahal balu”, “kaltegarria izan ahal balitz”... Etor-kizuneko teknika batek, izan frackinga edo izan *frucking*-a, segurua balitz, ez luke legea urratuko. Baina jakina, segurtasun hori frogatu egin beharko litzateke. Momentuz argi dagoena hau da: inon idatzita ez badago ere, gizartearen onespina izeneko gauza bat existitzen da. Eta frackingak onespina hori galdu zuen 2011ko urrian, Patxi Lopezek Texasen iragarri zuenean 60 urterako gasa zegoela hemen. Ordutik hona frackingarekiko iritzi bat zabaldu da euskal gizartearen, frackingak sinetsgarritasuna galdu du, eta nekez berreskuratu du.

EAJ barruan azken hilabeteetan gaiarekiko jarrera aldaketa nabarmena izan da.

Ez dago zalantzarik 2011tik hona bizi izan dugun guztia beharrezkoa izan dela azkenean denok jarrera bat hartzeko. Begi-bistakoa da PSE eta EAEko PP, frackingari dago-kionez, ez direla duela bi urteko berak [biek bozkatu dute legearen alde]. Eta gaurko EAJ ere ez da 2011koa.



“Lege hau EAEko eskuduntzen eremuaren barruan sartzen da. Ikusi beharko da, hala ere, estatuak nola erreakzionatuko duen”.

Zenbait analisiren arabera, EAJren ikuspuntutik Texaseko iragarpen arranditsu hura egitea izan zen Patxi Lopezek gobernuaren hutsegiterik handiena, Ibarretxeren garaitik isilpean egiten ari zena zapuztu baitzuen. Bestela, lehenbiziko zulaketak egiteko zorian geundeko agian.


Baliteke hala izatea. Baina hori diotenek, berriz ere, ez dute kontuan hartu arazo nagusia: gure baliabideen ezagutza zehatza behar dugu, eta horretarako ikertu egin behar da, horixe da gobernu arduratsu baten lana. Nik ez dut kritikatzeko Ibarretxeren gobernuak hidrokarburoak bilatu nahi izana, eta are gehiago, gaur, 2015eko uztaillean, uste dut SHESA sozietate publikoa guztiz beharrezkoa dela, trantsizio energetikoaren kontrola esku publikoetan nahi dudalako. Hori bai, Ibarretxeren gobernuak ikertu beharra zeukan, baina ez edozein prezioetan. Nik gobernu hari egin diezaiokean kritika Kuartangoko Udalaren (EAJren esku, bide batez) haserrearen eragin zuen bera da: beren lurretan bi putzu egiteko proiektuaren berri buletin ofizialaren bidez jaso zutela.

EAJ Lakuara itzuliz geroztik, Jaurlaritzak aurrera eraman ditu fracking proiektuak. Zure ustez zer egin beharko du orain?

Haiei galdetu beharko zaie. Edozein kasutan, zeri begiratu behar dio Ekonomia Garapen sailak? Legean idatzita dagoen testuari, edo herritarrek agertu duten borondateari, alderdi politikoek formula honen bidez adierazi dutena beste modurik ez zutelako? UPyD ez beste alderdi guztiok esan dugunaren esanahia argia da: gelditu hau. Jaurlaritzak zer egingo duen? Ikusiko dugu.

Nekez sinetsi daiteke EAJn gaiak eztabaidatu duzuen bitartean Ekonomia Garapen sailaren asmoen berri izan ez duzenik.

Eta nork esan dizu ez dugula izan? Jaurlaritzak argi esan du beti: hidrokarburoak aztertzeke sozietate publiko bat dauka, eta ikertzen jarraitu nahi izan du. EAJ izan da hausnarke-ta egin eta gero, bost urteko moratoria proposatzeko barne-akordioa lortu duena. Eta akordio hori alderdi barruko osagai guztiak eta erpin guztiak kontuan edukita gauzatu da. Jaurlaritzak –izan Ibarretxerenak,



Lopezzenak edo Urkullurenak— iker-
tzeko beharra dauka, eta beste
batzuei dagokigu mugak ipintzea,
beste batzuek esango diogu “ikertu
bai, baina ez edozein preziotan”.

Energia-baliabideak administrazio
publikoaren kontrolpean edukitzeko
beharra aipatu duzu lehen. Araban
aurreikusita zeuden proiektuetan,
ordea, SHESA sozietate publikoaren
parte hartzea erdia baino txikiagoa zen,
AEBetako enpresek zuten gehiengo.

Europak ez du ia hidrokarburoen
alorreko teknologiarik, eta alde
horretatik estatubatuarren menpe
gaude. Egia da parte hartze publikoa
erdia baino gutxiago dela, %40 ingu-
rukoa uste dut, baina zalantzarik ez
dago parte hartze publikoak pisu
espezifiko bat duela. Ipar Amerikako
enpresa bat ez da hona etorriko
negozioa egitera bertoko gobernu-
aren aurka jarrita, portzentajea han-
diagoa izan arren. Beraz, kontrol
publikoa existitu existitzen da. Horri
lotuta, badago Fracking Ez platafor-
mak zorroztasun handiagoz analiza-
tu beharko lukeen gai bat: estatuak
hidrokarburoak ikertzeko baimenak
ematen ditu, eta eskusibitatean ema-

**“Patxi Lopezek 2011n
egindako iragarpenetik
frackingak
sinesgarritasuna galdu
du euskal gizartean, eta
nekez berreskuratuko
du”**

ten ditu. Behin ikusita leku batean
badagoela errentagarritasunez ustia-
tzeko moduko baliabide bat, estatuak
ikertu duenari emango dio ustiape-
nean lehentasuna, baina erauzketa
erritmoa ez bada hark nahi bezain
azkarra, kontzesioa kendu eta beste
bati eman diezaioke. Hori beste ele-
mentu bat da euskal herritarrok esan
dezagun: non egon behar da baliabi-
de hori? Teknika egokia sortu bitar-
tean, lur azpian. Galdera nagusia ez
baiza gasa ote dagoen, aspalditik
dakigu gasa dagoela, galdera da ea
zenbat gas ateratzeko gai garen tek-
nika jakin bat erabiliz. Beraz, ustiape-
na baldintza seguruetan egitea ahal-
bidetzen duen teknika batekin egin
behar da ikerketa ere. Eta gaurko bal-
dintzak ez dira egokienak, besteak

beste Araban 800 putzu inguru egin
beharko liratekeelako. Astakeria bat.

Ekainaren 30eko eztabaidan esan
zenuen bi aukera zeudela mahai gai-
nean: azkenean onartu zena, hau da,
hiru neurri murriztaileena, eta zuena,
hiru neurriok gehi moratoria. Esan
zenuen ere tamalez ezin zitzaizela gal-
detu Herri Ekimen Legegilea sinatu
zuten 100.000 herritarrei zein nahia-
go zuten. Uste duzu onartutakoare-
kin pozik egongo direla?

Ez dakit zer pentsatzen duen
100.000 horietako bakoitzak —bide
batez esateko, ni bat naiz—, baina
garbi dago onartu denaren espiritua
frackinga eragozteko dela. Eusko
Jaurlaritzak jaramon egiten badio
horri, oso argi dago zer egin behar
duen: teknika hau giltzapean eduki.

**Azkenerako neukan gordeta galdera
baina aurea hartu didazu. 100.000
sinatzaileetakoa zara, beraz.**

Bai. Izarrakoa naiz eta hamasei urtez
izan naiz nire udaleko, Urkabustaize-
ko, alkatea. Oso antzinako usadio eta
arauei esker gorde diren akuifero
izugarrien gainean dago nire herria.
Horregatik sinatu nuen. ■

PASOLINI

ROMA

Marmich



**San Telmo
Museoa**

Erakusketa

**2015
6.20/10.4**

#pasoliniroma

Antolatzaileak:

STM

San Telmo Museoa

donostiakultura.com



DSS2016.EU

Ekizleak:

CCCB Centre de Cultura Contemporània de Barcelona



azienda speciale
PALAEPO

Berliner Festspiele
Martin-Gropius-Bau



Erakunde Babesleak:



Patrono Pribatuak:



EL DIARIO VASCO



Enpresa Ongileak



berria

naiz:

GARA

Europar Batasunaren Cultura
programaren laguntzarekin /
Con el apoyo del programa
Cultura de la Unión Europea



Cultura

«Bierzón adineko jendearekin batera ari da galtzen galegoa»

Ez alferretan, egunkaria irakurtzen ari dela ikusi dugu Rafael Adan. *España y sus lenguas* du testuak izena eta, “Espainiako gobernuak lau hizkuntza ofizialak defendatu beharko lituzkeela dio, baina ez dut sinesten, guztiekikoa egin nahi bat besterik ez da, taktika modu bat”. Bilbon eta Gasteizen izan da EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak gonbidaturik, galegoaren irakaskuntza Bierzon (Leon, Espainia) zertan den azaltzen.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkia: Zaldi Ero

Galegoa Galiziatik kanpora, Gaztela-Leongo erkidegoko Bierzon...

Bertako hizkuntza naturala delako galegoa, Ourensen bezain naturala! Jakina denez, latinaren eboluzioak galego-portugesara garatzera jo zuen lurralde horretan, eta hizkuntza horrek gaur arte iraun du bertan. Kontua da Bierzo ez dagoela Galiziako administrazioaren mende, eta bertako bizilagunek ez dutela hizkuntza horren eskubiderik, eta ikusgarritasuna ere galdu dutela. Edozertarako ere, balio instituzionala arras galdua du galegoak Bierzon: ez osasun sisteman, ez udal zerbitzuetan, ez hezkuntzan, galegoak ez du lekurik izan Bierzon.

Gaur egun badu nola-halakoa.

Bai. 2001ean akordioaren baten beharra ikusi zuten Gaztela-Leongo Juntak eta Galiziako Xuntak, ikusirik beren administrazioaren peko ziren zenbait lurralde zatitan hiztunak galegoz mintzatzen zirela. Ondorioz, galegoa sustatzeko akordioa sinatu zuten. Nahi izanez gero, erantzun politikoa eman zioten hainbat organizaziok egiten zuten presioari. Izan ere, galegoa galtzen



“Askok ez du ezer egin nahi galegoaren normalizazioaren alde, gauzak bere horretan nahi ditu, nahiz galegoz mintzatzen diren”.

ari ziren Bierzoko belaunaldi berriak, eta beraz, neurriak hartu beharra zegoen. Orduan, onena galegoa eskolan erakustea zela pentsatu zuten, eta horretan hasi ziren, Bierzon ez ezik, baita Sanabrian (Zamora) ere.

Zein bide egin da ordutik hona?

Ez askok nahi beste, baina zerbait egin da. Galegoa Bierzoko eskoletan irakasten hasi ziren, eta hori urrats bat izan zen. Beste urrats bat izan zen, adibidez, 2007an, Gaztela-Leonek onartu zuen estatutuaren

“Galegoa Bierzon prestigiatzeko neurri inportanteenetakoa izan da eskualdean Galiziako telebista ikusi ahal izatea”

erreformak adieraztea galegoa —eta leonera—, errespetatu eta babestu egin behar direla hizkuntza horiek hitz egiten diren komunitateetan.

Legoa betetzeko borondate politikoa behar, ordea.

Ez betetzekotan, alferretan da. Hara, aspaldi, galegoa Bierzon prestigiatzeko neurri inportanteenetakoa izan da eskualdean Galiziako telebista ikusi ahal izatea. 80ko hamarkadan hasi zen emititzen Galiziako telebista, eta eragozpenik gabe ikusi ahal zuten Bierzon. Bada, bertako bizilagunek ikusi zutelarik beraiek hitz egiten zuten moduan mintzo zirela pantailan esateriak, balioa eman zioten. Baita balio praktikoa ere: eguraldi iragarpenaren berri izan nahi zuen adineko jendeak, adibidez, Galiziako telebistara jotzen zuen zuzenean. “Zer eguraldi izango dute Lugon eta Ourensen? Horixe izango dugu hemen ere!”, zioten Bierzon. Espainiako telebistari begiratzuz gero ez zegoen jakiterik! Eguraldiarekin batera, marrazki biziek ere garrantzi handia izan dute, haurrek haiek kontsumitzen baitituzte. Eta musika saioak ere ez dira bazter uztekoak, Bierzoko musikari askok Galiziako telebistan izan baitute musika jotzeko aukerarik behinena.

2001ean galegoa Bierzoko eskoletan irakasten hasi ziren.

Gaztela-Leongo Juntak eta Galiziako Xuntak protokolo bat sinatu zuten, galegoa hautazko ikasgaitzat sartzeko irakaskuntzan. Haur eta

Lehen Hezkuntzan, esaterako, hala-ko ikasgai jakin bat galegoz edo gaztelaniaz jasotzeko hautua egin dezake ikasleak. Bigarren Hezkuntzan, Gizarte arloa galegoz ikastea aukeratzeko modua du, eta horrekin batera, DBHko 4. urtean, Galiziako hizkuntza eta kultura ikasgaia du hautazkoetan. Gaur egun, bestalde, Batxilergoko bi kurtsoetara luzatu da Galiziako hizkuntza eta kultura ikasteko aukera.

Bide-seinale gaztelaniazkoak zirriboraturik eta galegoz zuzendurik ageri dira.

Galegoaren normalizazioa helburu duen jendearen ekintza da, bistan da —errebeldia ekintza, nahi baduzu—, agerian utziz Bierzon badela gaztelania ez beste hizkuntza bat. Toponimia txikian ere garbi ageri da hori. Dokumentuak gaztelaniaz idatzirik dauden arren, horietako lursail izenak galegozkoak dira. Zenbait kasutan, toponimia txiki hori gaztelanitzeko zantzuak ere ageri dira. Eskualdean bizi den jendearen ahotan herriaren izena Vilafranca do Bierzo izanagatik ere, Villafranca del Bierzo ageri da beti dokumentu idatzi guztietan. Azkenean, jendeak uste du horixe dela egiazko izena, eta ez du besterik erabili ohi.

Bada galegoa aitzinatzeko bestelako ekimenik Bierzon?

Askok ez du ezer egin nahi galegoaren normalizazioaren alde, gauzak bere horretan nahi ditu, nahiz galegoz mintzatzen diren. Maila instituzionalari dagokionez, gure elkarte Asociación Berciana da Lingua Xarmentarekin, esaterako, udalek beti erakutsi dute jarrera ona, izan PP, PSOE edo Ezker Batuko udal gobernuak. Aldiz, udalerrri mailako erakundeak baino gorago jo izan dugunean, egin diguten harrera inoiz ez da hain suharra izan. Bestalde, instituzio horiek ekimenik ez dute, gu joan behar gara eske.

Bierzo

“250.000 LAGUN dira Bierzon, eta Ponferrada, Vilafranca do Bierzo eta Cacabelos dira herririk handienak. 2002-2003 ikasturtean 161 ikaslek eman zuten galegoz ikasgai bat ikasteko izena, eta joan den ikasturtean 833 izan dira. Gainera, Ponferradako hizkuntza eskolako ikasleak eta Zamorako Sanabriakoak gehitu behar zaizkie haiei. Kopuru adierazgarria da.

Galegoa ez da hizkuntza arrotza Bierzon, bertakoa da, Galiziarekin mugan dago eta guztiek ulertzen dute. Sasoi batean, ganadu feriak egiten zirenean, Galiziako eta Bierzoko jendea etengabeko gurutzaketan zegoen, eta ohiko hizkuntza da mugalde horretan. Bierzoko jendea kontziente da galegoz mintzo dela, haren galegoa Galiziako galegoa dela, Ourensen nahiz Lugon hitz egiten den bera, tokiko berezitasunak gorabehera. Ikasliburuak ere berak dira leku guztietan”.

Populazioaren herena da galego hitzuna Bierzon.

Baina azterketa zorrotzik ez dugu, eta beharko genuke zehatz jakin zenbat jendeak hitz egiten duen galegoz Bierzon. Eskatu ere izan diegu azterketa hori egiteko bai Galegoaren Akademiari bai Gaztela-Leongo Juntari, baina oraindik ez da horrelakorik egin. Uste dugunez, Bierzon adineko jendearekin batera ari da galtzen galegoa. Adinekoak hitz egiten du galegoa gehienbat, ez belaunaldi berriek. Galizian atzera galegoa, eta hainbat atzerago Bierzon, hemen ez baita hizkuntza ofiziala ere. ■

Babeslea: IVAP

 HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA  euskadireus	 Enplegu Publikoa Lan-eskaintzen harpidetza Lan-geltzak (Eusko Jaurlaritzak) Beste administrazioetako lan-eskaintzak Hautaketak Ondakidetzak, 2014-15eko Enplegu Publikorako eskaintza Ertzaitzaren XXV. Promozioa	 Prestakuntza Administrazio orokorra Toki Administrazioak Foru aldundiak Berezikiak hizkuntza prestakuntza EVEIU Prestakuntza jardueren homologazio prozedura	 Euskara Eskolara ikastetxeak Hizkuntza eskakizunak Berezikiak hizkuntza prestakuntza Argitalpenak Eskolaz kanon egiteko baliabideak EZO - Hiztegia Zehatza Ofiziala
---	--	---	--

Oinarrizko errenta unibertsala ezarriko dute Utrecht hirian

Herritar orok herritar izateagatik gutxieneko diru-sarrera jasotzeko duen eskubidea da oinarrizko errenta unibertsala. Herritar guztiei bizitza duina bermatzeko baliabidea izatea eta gizarteko desoreka ugari arintzea ditu helburu.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

330.800 BIZTANLE INGURU dituen Utrecht hirian (Herbeherak) abiatuko dute esperientzia pilotua, hiriko unibertsitatearekin elkarlanean: oinarrizko errenta unibertsala eta baldintzarik gabea integratuz gero, gizartea eraginkorra al den aztertu nahi dute. Horretarako, udako oporren ostean jarriko dute martxan esperientzia.

Gaur egun ditugun prestazio sozial eta ekonomikoekin konparatuta, oinarrizko errentak duen ezberdintasun nagusia da lana egitearekin bateragarria dela. Hala, sistema hau aplikatuz lanordu malguagoak eta gizarte ez hain zurruna bilatzen dute Utrecht-en, zaintzari, boluntariotzari edota ikasketei denbora gehiago eskaini ahal izateko.

Gizarteari ekarpena egiteko akuilu?

“Datuek erakusten digute herritarren %1,5ek baino gutxiagok egiten diola iruzur ongizateari, baina



Gizarte malguagoa bilatzen dute, zaintzari, boluntariotzari edota ikasketei denbora gehiago eskaini ahal izateko.

errenta unibertsala jarri edo ez erabaki aurretik, eraginkorra al den aztertu behar dugu”, adierazi du hiriko Enplegu zinegotziak. “Zein da emaitza, herritar batek hilero diru bat jasotzen duenean, araurik eta kontrolik gabe? Etxean geratuko da pasiboki, ala garatzeko eta gure gizarteari ekarpena egiteko akuilu izango da?”.

Antzeko azterketak egiteko, inguruko beste hainbat hirirekin elkartuko da Utrecht.

Gipuzkoan bideragarri

Gipuzkoan oinarrizko errenta banakakoa, unibertsala eta baldintzarik gabea ezartzea bideragarria dela eta herritarren %75ak baino gehiagok bere bizi maila hobetuko lukeela frogatu zuen Jordi Arcarons Ekonomia katedradunak, 2014an Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako sinposioan.

Katedradunak egindako simulazioan, 2011ko datu ekonomikoak eta demografikoak hartu zituen aintzat: aberastasunaren birbanaketa eginez, oinarrizko errentarekin 18 urtetik gorako biztanleek 658,5 euro jasoko lituzkete hilero eta adin txikikoek 131,7 euro. Horretarako zerga sistema erreformatu behar dela eta gakoa borondate politikoa dela azpimarratu zuen Arcaronsek. ■



EGUZKI BORDA IDIAZABAL GAZTA ETA ARDI ESNEA

943 354 075 / 660 719 654
EGUZKI BORDA BASERRIA
ERRETERIA (GIPUZKOA)



EITBk solaskideen hizkuntza errespetatuko du adierazpenetan

CARSOA BIDASOAKO HITZA



EITBKO KAZETARIEK garbi adieraziko diote solaskideari euskara hutsean egin dezakeela, gaztelaniaz, edo bietara. EITBren oharren arabera, ikus-entzuleek begi onez hartuko dute euskarari leiho bat irekitzea gaztelaniazko kateetan.

Alegia, telebista kateetako edo irratieta kazetariak adierazpen eske aritzen direnean solaskideak berak esango du zein hizkuntzatan egin nahi duen, ala bietara egin nahi duen. EITBk zabalduetako oharrean

dioenez, irratia edo telebista bera arduratuko da azpidatziak edo kazetariaren adierazpenak baliatzeaz, entzuleak inolako informazio galararik izan ez dezan. ETB2n, Radio Euskadin eta Radio Vitorian euskarazko adierazpenek izan dezaketen presentzia ari dira hori diotenean.

Euskalgintzak behin baino gehiagotan eskatua zion EITBri hizkuntza hautua errespetatzeko, eta gaztelaniaz ari diren kateetan ere euskarazko adierazpenak egiteko aukera onartzeko.

2014an ekimena Lea-ArtiBAI Euskarari elkarteak eta UEMAK bultzatu zuten. Ondoren, Urola Kosta eskualdea batu zitzaion. 2015eko apirilean, kirol eta kultur munduko hainbat kidek egin zuten eskaria, besteak beste, Andoni Egaña, Pako Aristi, Itziar Ituño, Gaizka Garitano, Aitor Gorosabel, Ramon Agirre, Mikel Markez, Amets Arzallus, eta Iñaki Artolak.

Jabi Lauzurika hil da



BILBO HIRIA

Uztailaren 4an hil zen Jabi Lauzurika ezustean. Arrosan (Nafarroa Beherea) mendi buelta ematera aterata.

Durangarra zen sortzez eta Bilbon bizi zen. Euskalgintzan eta bertso munduan oso ezaguna zen Lauzurika, batik bat Bilbo inguruan. Bizkaiko hiriburuko Kafe Antzokiaren eta berau kudeatzen duen Zenbat Gara elkartearen sorreran hartu zuen parte. Azken urteetan, Gabriel Aresti euskaltegiko irakaslea zen eta Bilbo Hiria Irratiko esataria ere bai. Potojorran bertso eskolako kidea ere bazen.

Uztailaren 9an omenaldia egin zioten Kafe Antzokian.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Eta greziar intsumisioa zapalkuntza osora zabalduko bagenu?

ERREFERENDUMEAN ezezkoak irabazi ondoren, Greziako herritarrek intsumisio lezio ederra eman digute. Nazioarteko Diru Funtsek, Europako Banku Zentralak eta Europako Batzordeak inposatu nahi dituen erreformei planto egin diete. Institutuzio horiek osatzen dute Troika, inork aukeratu ez duen erakunde antisozial eta antidemokratikoa. Greziako herriak gainerako europarroi eta munduari erakutsi digu xantaia-ri ez zaiola men egin behar eta ez dela beldurrik izan behar. Jendartean izua zabaldu nahi izan zuten nola edo hala baiezkua lortzeko, baina greziarrak giza duintasunarekin kontsekuente izan dira, eta nahiago izan dute euren buruen jabe izan Troikak ordezkatzeko duen kapitalismo krudelaren aurrean belaunikatzea baino. Ez da harritzekoa, erakunde horrek milioika lagun eraman baititu langabeziara, pobrezia eta bazterketa sozialera, eta suizidioak ere eragin ditu horrek. Hemendik aurrerako bidea ez da erraza izango. Troika umiliaturik sentitu da eta ez die barkatuko, aurkituko ditu moduak mendekurako. Baina Troikak ere ez

du erraz izango, ikusi baitu herri oso bat altxa dela erresistentzia aktiboa egiteko. Kapitalaren instituzioek beharrezkoa dute zorra kobratzea, zati bat kitatu eta denbora gehiago emanda ere.

Gainerako europarrok eta munduak ondo egingo genuke greziar intsumisioa zapalkuntza osora zabalduko bagenu: ekonomikoa, soziala, nazionala, lan arloko, sexuari dagokiona... Arlo guztietan landu beharko genuke intsumisioa, eta giza eskubideak errespetatzen ez dituen sistema ororen aurrean zutik jarri beharko ginateke. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna errespetatzen ez dela? Bada intsumisioa. Azken batean, merkatarien eta finantza espekulatzailen Europari ezetz esatea litzateke, horiek baitira gure jendartean dagoen desberdintasun sozialaren sortzaileak. Intsumisioa egin beharko genieke halako Europa defendatzen duten gobernu eta erakunde guztiei.

Juan Mari Arregi

Eliteen ustelkeriak zergatik barkatzen dituzte herritarrek?

Teflon sindromea deitu zaio. Badirudi aberatsak eta agintari politikoak sukaldeko zartaginetan erabiltzen den Teflon famatuzkoa daukatela larruazala: ezer ez zaie eranstean, denak egiten die irrist. Lapur edo gaiztagin famak edonor daraman bezala hondamendira, handi-mandien botereak ez du sufritzen horregatik. Zergatik ote da?

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

LAPUR TXIKIYAK KASTIGATZEKO non-nai badago kartzela / kupira gabe ematen zaio denbora askoko itzala / (...) aundiak libre ikusten dira pasian dabiltzala...” aspaldi kantatu zuen arren Jose Manuel Lujanbio *Txirritak*, injustizia ez da sendatu mende bat beranduago.

Pierre Lascaumes soziologoak eta Carla Nagels kriminologoak plazaratu berri dute *Sociologie des élites délinquantes, de la criminalité en col blanc à la corruption politique* (Elite gaizkileen soziologia, kriminalitate gorbata dunean hasi eta ustelkeria politikoaren buka). Saiatu dira erakusten nola lortzen duten boteretsuek lege penalak saihestea edo beren interestarako moldatzea.

Soziologiaren ikuspegitik enigma dirudien egoera honetatik abiatu dira Lascaumes eta Nagels. Hauteskundeetan aurkeztzen diren artean bada pertsonalitate bat epaileak ikertzen ari direna, tartean bere kanpainaren finantzaketagatik. Ba ote du irabazteko aukerarik? Gezurra diruen arren, alde nabarmenez irabaziko du eta gainera inork ez dio auzitan jarriko garaipena. Nola liteke? Botoa eman diotenen ezberdin epaitzen dituzte politikaria eta delitu arruntak egiten dituztenak? Zertan datza diferentzia? Soilik batzuk eta besteak klase sozial ezberdinetakoak izatean?

Liberation egunkariari eskainitako elkarrizketa batean (“Frogen ezabatzeari eten gabe egiten dute elite delinkuentek”) ikertu dutenaren gako nagusiak eskaini ditu Lascaumesek, argitu ostean 15 laguneko talde multidisziplinarrak landu duela ikerlana, aurrez aurreko 2.000 inkesta eta elkarrizketa baino gehiagotan oinarrituta.

Hasteko, eliteek beren delituak diskrezio osoz burutzen dituzte. Lapurreta edo eraso txikiak erraz ikusten dira eta horiek pertsegitzeko daude prestatuak polizia eta auzitegiak. Hauek ez dute denbora galtzen enpresa handien edo dirudunen kontabilitateetan arakatzeko. Alderdi politikoaren finantzaketen inguruko delituak oso berandu sartu dira legetan.

Biktimak ere oso ezberdinak dira batean eta bestean. Delitu arruntetan biktimek mugiarazten dute sistema. Aldiz, elitearen delituetan sarritan esaten da biktimarik ez dagoela, nahiz eta egia den biktimak urrun eta lausotuago daudela: kalteak herritar askok edo guztiek nozituko dituzte. Izatez, biktimak ohartu ere ez dira egiten kalteak jasan dituztenik.

“Gu saiatu gara erakusten —dio Lascaumesek— herritarren itxurazko axolagabekeria hau lotuta dagoela jendeak eliteekin daukan harre-

Rue 89 webgunetik hartutako argazkia 2001ekoa da: Jacques Chirac orduan Frantziako lehendakaria zena Parisko apelazio auzitegiaren protokolozko ekitaldi batean, epailez inguratua. Beste soziologo famatu batek, Luc Boltanski, ikerlariari dei egin izan die aztertu ditzaten agintean daudenei batetik boterea erabili eta bestetik disimulatzea baimentzen dieten mekanismoak. “Klase menperatzaile baten kideek elkarrekin partekatzen dute jakintza komun bat besteei aitortu ezin dietena —doi-doi beren buruei aitortu diezaieketena— eta zera da: batetik, nahitaezkoa dela arauak egotea, zuzenbidea, prozedurak, erregelamenduak, eta abar, baina, bestetik, ezin dela ezer benetan probetxugarririk lortu (...) ezin dela ezertxo ere egin zalantza betetako mundu honetan arau horiek zuzen betez”. Antza denez, politikari ustelei botoa ematen dieten herritarrak ere ados daude joko horrekin.

manarekin, hau da, hautetsiez, enpresetako ugazabek edo goi mailako funtzionarioek daukan irudiarrekin. Irudipena daukagu agintzean egin dituzten gehiegikeriak beren lanaren osagai bat direla”.

Eliteek beren buruaz betidanik eman duten irudiaren eraginez gertatzen da: denen ongizatean pentsatzen duten pertsonak, beren bizia karguari eskaintzen diotenak... “Sarritan diskurtso ia erlijiozko batez bezititzen dute beren konpromisoa, halako apez izaera batez. Bortizkeriaz erasotzea dirudi horiek auzitan jartzea, beren interesak eta darabilten aurpegi bikoitza erakustea. Ez da batere gauza erraza”.

Boteretsuen bekatu arinak

Zientoka ikerlari ari da milaka azterketa burutzen delinkuentzia arruntaren inguruan. Aldiz, ia inor ez eliteen kriminalitatean. Zergatik?

Dio Lascaumesek politikan eta ekonomian boterea daukatenean dosierak gehien bat eskandaluen salaketa moduan tratatzea kalterako dela. Hedabideetan delituon inguruan halako antzerkiak antolatzeak eragozten du arazoan ulertze soziologikoa. Baina, gainera, boteretsuen delituak askoz konplexuagoak izan ohi dira ulertzeko bezala azaltzeko herritar soilen hilketa edo lapurreta baino. Hori gutxi



balitz, ikerlariek ere badute halako beldur bat, erreparo ideologiko bat, eliteen gaiztakerietan muturra sartzeko.

Izenak baino gehiago mekanismoak ardura zaizkie soziologo hauei, eskandaluen txinpartak baino gehiago mekanismo sozialen deskribapena. Horretan soziologo estatubatuarren aitzindaritzak aitor-tzen dute, bide nabar Edwin Sutherlandena. 1949an *White Collar Crime* (Delitu gorbataaduna) plazaratu zuen, editoreak zentsuratuta; haren analisia funtsean baliagarri da gaur ere Lascoumesen ustean.

Sutherlandek nahi zuena esango zuen, baina oraindik ere badirudi, ez bakarrik jende soilen artean bai-zik eta akademikoen artean berdin,

eliteen kriminalitatea oharkabean pasatzea loturik dagoela XIX. mendeko kriminologoez ezarritako bereizketarekin. Enrico Ferri klasi-koak gizartearen gailurrean kokatzen omen zuen deliturik egiten ez duen klasea, organikoki ondradua, eta azpiko zolan ondradutasunik gabeko jendea.

Legea urratzekotan, azpikoek egin bide dituzte berez gaiztakeriak direnak (*mala in se*) eta, aldiz, elitekoek bekaturen bat egitekotan izango da legeek onartzen ez duten zerbait (*mala prohibita*). Berezko gaiztakeriak versus gaiztakeria formalak, ezikusia egiteko modukoak. Ez dituzu konparatuko inori sakelatik dirua ebastea eta Estatuari zergetan iruzurra egitea...

Sutherlandek duela 70 urte azaldu bezala, “ez direnez salatzen, gorbataadunen delituak gutxi pertsegitzen dira eta herritarrek ez dituzte lehentasunezkoztat ikusten. Batetik ‘organikoki onesta’ den klasea dela eta bestetik gutxi pertsegitua, azkenean halako ikasketa sozial bat gertatzen da, esan nahi baita doktrinatzeko ideologikoa, bi menderen buruan ekarri duena gizartearen zigorretik kanpo geratzea zenbait jokabide objektiboki okerrak izan arren jendearen oharkabean pasatzen direnak”.

Azkenean, boteretsuen artean sumatzen diren delituetatik oso gutxi abiatzen dira bide penaletik. Bestelako negoziaketa bidez soluzionatzen dituzte. Epaiketara gutxitan iristen dira eta kondena bat gertatuz gero ere boteretsu kondenatuek ez dute nozitzen beste edozein herritar zigortuk jasango lukeen lotsaizun publikorik: eliteek “badituzte irudi ona berreskuratzeko beren erritoak [*rituels de restauration*], kapital ekonomiko, sozial eta kulturazkoak mobilizatuz burutzen dituztenak”.

Boteretsuen delituei ikerlariek arreta handiagoa ezarri diete zenbait krisi arotan (1929, 1968...) eta, aldiz, 1980etan neoliberalismoa nagusitzen hasi zenetik gorbataadunen kriminalitatea askoz errazagoa da eta oharkabeago pasatzen. Botere guneetan banalizatu egin dira legea urratzea, iruzur fiskala eta kontrata publikoetako ustelkeria.

Azken datu bat: enpresa batean zenbat eta berdintasun falta handiagoa enplegatuen artean, orduan eta legea urratzeko joera handiagoa. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Lekukoa Paristik Ortzaizera

“**POLIZIAK** jendeei fisikoki eraso dien gisa berean, konponbide prozesuaren kontrako eraso zuzen baten gisa ulertzen dugu. Indarkeriak gauzak okertu besterik ez du egiten”, Antton Seychalen, Ortzaizen (Nafarroa Beherea) ETaren armagabetzearen aurka polizia frantsesak egindako operazioaren harira sortu den batzordeko kidearen esanak dira.

“Indarkeriak gauzak okertu besterik ez du egiten”. Zenbatetan entzun ote dugun, baina ETari zuzendua: “Indarkeria ez da bidea”, “ez duzue euskal gizartea ordezkatzeko”, “armak utziz gero, dena da posible”, “armak presoen truke”, “demokrazian dena lor daiteke”, “bukatu da borroka armatuaren garaia...”. Espainiar eskuin gogorrenetik eta ezker abertzaleraino entzun ohi dira halakoak, era guztietako politikarien ahotik aterata.

Bistan da ez zela egia esaten. Zendu berri den Javier Krahe madrildarrak kantatzen zuen gisan, “*bombre blanco hablar con lengua de serpiente*”. Historia hor dago, jakina, ezabatu ezinik eta euskal gizartearen aurrean bakoitzak bere zamari eutsi beharko dio, baina jadanik ez du merezi ETak galdutako trenez jardutea. Bada ordua euskal gizartea bakearen aurrean galtzen ari den trenez aritzeko.

Beste behin ere Iparraldeko lurretatik datorkigu ikasgaia: Ortzaizeko herritarrek hartu dute Parisko Konferentzia humanitarioaren lekukoa eta oraingoan bai, duintasun eta erantzukizun osoz, Grazi Etxebeherek bi etakide babesteko keinua humanitario eta politikoa dela lau haizetara zabaltu du. Armak entregatu nahi zituzten bi etakide aterpetu

eta laguntzeagatik atxilotu eta auzipetu dute Ortzaizeko erizain jubilatua.

Horren aurrean protesta egin zuten herritarrek jipoitu zituzten Frantziako segurtasun indarrek. Eta ondoren 600 herritarrek prentsaurrean deitu zuten manifestazioa datorren larunbaterako Donibane Lohizunen, gerrarekiko protestan eta bakea aldarri. Hori guztia ez Hernanin, Arrasaten, Errenterian, Bilboko Alde Zaharrean edo Iruñean, hori guztia Nafarroa Behereko 694 biztanleko herri batean izan da.

Auzitegi Nazionalak iaz deitu zituen deklaratzera ETA armagabetzen laguntzen ari ziren Manikkalingam, Kasrils eta Maccabe

JOSU ERKOREKAREN ahotik erantzun zuen Eusko Jaurlaritzak: “ETari ez zaio komeni eman beharreko urratsak atzeratzea”. Eta Mariano Rajoyk bezala, zera gaineratu zuen: armak entregatu eta desegin dadila lehenbailehen. Eta kito. Aieteko prozesuaren sinatzaile eta konponbide ordenatuaren EAJko ordezkariak behin eta berriro uzten dute irteera horren zama guztia ETA eta presoen gain. Armak entregatu, desegin eta iraganarekiko ikuspegi autokritikoa da orain arte jeltzaleek erakusten dituzten irteera ordenatuaren ikusmolde nagusiak.

Baina errealitateak bestelako egoerak ere erakusten ditu: Arnaldo Otegi eta Bateraguneko gaine-

rako espetxeratuak ETak borroka armatua alboratzeko prozesua bultzatzeagatik espetxeratu zituzten. Oso kritikatu izan zen euskal gizartearen gehiengoaren aldetik eta justiziaren aurkakotzat ikusi zen. Auzitegi Nazionalak ere iaz deitu zituen deklaratzera ETaren armagabetzea laguntzen ari ziren Ram Manikkalingam, Ronnie Kasrils eta Chris Maccabe bitartekariak. Iñigo Urkullu lehendakaria eta Jonan Fernandez Madrilen izan ziren haiei sostengua adierazteko. ETaren armagabetzea laguntzen ari ziren, orain Etxebeherek egin duen moduan. Ulergarria da EAJk ETari armagabetzea eta desegitea eskatzea, hori da beti egin duena; ulergarria ez dena da Madrileko etengabeko jarrera erasotzailearen aurrean horren isilik agertzea, eta irteera ordenatua ETaren aldebakarreko mugimenduekin prekatzea.

IRUÑEAN ere hainbat duintasun esparru berreskuratu dira sanferminetan, ez bakarrik ikurrina udal txean izan delako, batez ere haren karietara inongo jipoirik eta atxiloketarik egon ez delako eta legezko biolentziarik gabe ere dena hobeto doala erakutsi delako.

Zigor bakarra Joseba Asiron alkateak berak jaso zuen uztailaren 7an, itzaleko txistuen ozenak zezen plaza hartu zuenean. Eguzkitik Yolanda Barcinari txistu egiten zitzaionean, festak ez *politzizatze*ko ziotenen txistuak ziren oraingoak. Ikurrinaren *inposaketarekin* ere Iruñeko udala *politzizatzen* ari zela aipatu zuten gisan; egoitza publiko ziztrinenetik ere Iruñean egunero lau haizetara zintzilik diren Espainiako dozenaka bandera horiek neutroak bailiran. ■

ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat



Lar Zaldiak

Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserría,
Urdaia auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA
www.larzaldiak.com

1



Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2

Ekain berri




Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



Pistolak eta epistolak

Joan Mari Irigoien

2 liburu opari

www.elkar.com

4



Argia kamiseta

Kamiseta opari

www.argia.eus/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2468. Argia)

MADDIOLA LANDETKEA

Itziar Mundiñano Larraz (Etxarri Aranatz)

EUREKA!

Igor Jimenez Honrado (Elorrio)
Garbiñe Intxausti Altuna (Urruña)

ARTIUM

Blanca Beitia Bengoa (Gasteiz)
Itziar García Blázquez (Oñati)
Tere Insausti Irastorza (Zaldibia)
Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga (Donostia)
Blanca Lopez García (Gabiria)

IRUÑEAKO PLANETARIOA

Maritxu Dorronsoro Arostegi (Lazkao)
Itziar Biain Salaberria (Donostia)
Estitxu Kortajarena Ugarte (Tolosa)

ERLEA

Asier Alvarez De Eulate Mujika (Ordizia)

PARTE HARTZEKO

Asteleheneretik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.eus

www.argia.eus/guinea

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

guinea

argia



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com